

# Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunaren jarraipen-txostena

VISION
ZERO

# AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. ERAGILE SINATZAILEEK BEREN GAIN HARTUTAKO KONPROMISOEN GARAPENA

3. ERAGILE SINATZAILE BAKOITZAREN EKINTZEN ETA KONPROMISOEN AZTERKETA

4. GLOSARIOA

# 1. SARRERA



**Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituna bide-segurtasunaren eta mugikortasun seguruaren, jasangarriaren eta eraginkorraren aldeko konpromisoa da Euskadin. 2022ko azaroan sinatu zen, helburu bikoitzarekin:**

- 2030. urterako, Euskadiko kale eta errepideetan hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua %50 txikitzea

- 2050erako Zero Ikuspegia lortzea. Hau da, Euskadiko kale eta errepideetan hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua 0 izatea.



Bide Segurtasunaren aldeko Itunak Bide Segurtasunari ikuspegi integratu batetik begiratu nahi dio. Ikuspegi hori bikoitza da, batetik Sistema Seguruarena eta bestetik Zero Ikuspegiarena; horren bidez, giza faktorea trafiko istripuen kausa bakartzat hartzetik harago joaten da eta Euskadiko errepideetan hildakoak eta larri zaurituak eragiten dituzten istripuak saihesteko eta istripu-tasa horren joera aldatzeko lan egin dezaketen sektore eta erakunde guztiak biltzen dira.

Kontzeptu-esparru horretan, sinatzaileek honako konpromiso hauek garatzeko lan egitea adostu zuten:

**1. Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda inplementatzea** eta bide-segurtasuna eta mugikortasun segurua eta jasangarria bermatzeko aliantza estrategikoak ezartzea, gizartearen hazkunderako eta ongizaterako euskal ereduaren esparruan.

**2. Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea**, 2030erako gure kale eta errepideetan hildakoen eta larri zauritutakoen kopurua erdira murrizteko, 2020 urteko kopuruen aldean.

**3.** Trafiko-istripuen ondoriozko **Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea,** 2050era begira, Euskadi bide-segurtasunaren eta mugikortasun seguruaren eta jasangarriaren arloan Europako erreferente izan dadin.

**4.** Bide-segurtasunaren, osasunaren, berrikuntzaren, hezkuntzaren, justiziaren, ekitatearen, berdintasunaren, udalerri eta hiri jasangarrien, errepide seguruen eta klima-aldaketaren arteko **interdependentziari heltzea,** pertsonak politika guztien erdigunean jarrita.

**5. Mugikortasun aktiboa indartzea** -bizikletaren edo beste garraiobide osasungarri batzuen erabilera-, eta garraio-sistema seguruak, merkeak, irisgarriak eta jasangarriak bultzatzea, garraio publikoa eta garraio-txartelen elkarreragingarritasuna sustatuz.

**6. Hiri-eredu berrien alde egitea**, pertsonen joan-etorriak eta salgaien garraioa osasunerako, segurtasunerako, ingurumenerako eta tokiko ekonomiaren garapenerako kaltegarriak izan ez daitezen.

**7. Bide-s**arean, **istripu-tasa handiko eremuak ezabatzeko eta hobekuntza-potentzial handiko eremuak hobetzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea,** jarduketa zuzentzaile eta prebentiboen bidez.

**8.** Euskadiko bide-sarea osatzen duten errepideen **kudeaketa integralaren**, adimentsuaren, dinamikoaren, seguruaren eta jasangarriaren **alde egitea.**

**9. Euskadiko bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde egitea**, bide-segurtasuna etengabe hobetzeko.

2021 2025

VISION ZERO

**10. Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea,** adimenean oinarritutako bide- segurtasunaren ereduak sustatzeko, eta mugikortasunaren eta errepideen kudeaketa-prozesuak optimizatzeko.

**11. Kolektibo kalteberak bereziki babestuko dituzten politikak bultzatzea**; hots, bizikleta erabiltzen dutenak, motor-gidariak, oinezkoak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen erabiltzaileak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, adinekoak eta haurrak.

**12. Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea,** zirkulazio-istripuak prebenitzeko eta bizikidetzan eta errespetuan oinarritutako jokabide arduratsuak bultzatzeko.

**13.** Trafikoaren arloan indarrean dauden arauak ez betetzeak dakartzan **arriskuei eta ondorio legalei buruzko informazioa ematea bide-erabiltzaileei**, eta arrisku-portaerak dituzten gidarien errehabilitazio eraginkorra bultzatzea.

**14.** Euskadiko enpresei eta erakundeei eskatzea **laneko bide-segurtasuna sar dezatela** enpresen eta langile autonomoen **laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan.**

**15. Istripuaren ondoren erantzun eraginkorra ziurtatzea**: laguntza psikologikoa, soziala eta legala trafiko-istripuen biktimentzat eta haien senideentzat.

**16. Itun honetako akordioak ezagutzera ematea,** eta herritarrei mezu hau helaraztea: bide-segurtasuna gizarte osoaren erantzukizuna da.

**17. Gobernantza-prozesu eraginkor bat abiaraztea**, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituneko konpromisoen ezarpen-egoera ebaluatzeko eta ezarritako helburuak lortzeko bidean zenbat aurreratu den neurtzeko.



Hitzarmena sinatu zenetik bi urte igaro direnean, garatutako konpromisoen balantzea egin da, bide-segurtasunaren arloan sinatzaileek egindako jarduerak aztertuta.

Era berean, Itunaren jarraipen horrek indartu eta jarraipena ematen dio bide nagusien eta bigarren mailako errepideen erakunde titularren arteko koordinazioari eta lankidetzari, bai eta trafikoaren eta bide-segurtasunaren kudeaketa hobetzen diharduten beste erakunde eta agentzia publiko eta pribatu batzuen arteko koordinazioari eta lankidetzari ere.

Sektore publikoko, pribatuko eta euskal gizarte zibileko eragileak daude Itunaren sinatzaileen artean:

- **Eusko Jaurlaritza.**
- **Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.**
- **Bilboko Udala, Donostiako Udala eta Vitoria-Gasteizko Udala.**
- **EUDEL, Euskadiko Udalen Elkartea.**
- **Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK).**
- **Euskadiko Txirrindularitza Federazioa.**
- **AESLEME, trafiko istripuak prebenitzeko Elkartea eta istripuen biktimei laguntzeko GKEa.**
- **EuskoFederpen, Euskal Autonomia Erkidegoko Pentsiodunen Elkarte Probintzialen Lurralde Federazioa**
- **Stop Istripuak.**
- **Stop Bide Indarkeria.**
- **EITB.**





# 2. ERAGILE SINATZAILEEK BEREN GAIN HARTUTAKO KONPROMISOEN GARAPENA



Bide Segurtasunerako Euskal Itunaren esparruan bide-segurtasuna hobetzeko, ezinbestekoa da hitzarmena sinatu duten eragileen arteko **koordinazio** sendoa. Horri esker, hainbat tipologiatako ekintza-sorta zabala antola daiteke. Koordinazio hori funtsezkoa da bideko istripuen konplexutasunari eta zeharkakotasunari aurre egiteko, eta ziurtatu behar da hasitako jarduerak elkarren osagarri direla eta Itunaren konpromisoak betetzen laguntzen dutela. Bide-segurtasuneko estrategia optimoak, Itunean sustatutakoak bezala, bide-segurtasunaren dimentsio desberdinak jorratzea ahalbidetuko duten ikuspegi anitzak integratzea eta lerrokatzea eskatzen du.

Txosten honek 17 konpromisoen garapena aztertzen du, eragile sinatzaile bakoitzak bere eskumenaren edo jarduera-arloaren arabera egindako ekintzak kontuan hartuta. Eragileekiko lankidetza hori eta bide-segurtasunaren arloan egin duten jardueraren azterketa funtsezkoak izan dira 2022ko azarotik 2024ko abendura arteko aldiari dagokion Itunaren jarraipenari buruzko txostena prestatzeko.

Horretarako, Trafiko Zuzendaritza, Itunaren jarraipena egiteko ardura duen Idazkaritza Teknikoaren bitartez, sinatzaile guztiekin harremanetan jarri da, lankidetza eskatzeko. 2024ko uztailetik abendura bitartean, banakako elkarrizketak egin dira Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Ituna egiten lagundu zuten, eta, ondoren, Itun horren konpromisoak beren gain hartu eta sinatu zuten eragile guztiekin.

Mugikortasun seguruarekin lotutako ekintzei buruzko informazio zehatza helarazi da, zehaztutako aldirako.

Jarduerak Ituneko konpromiso desberdinen arabera baloratu dira. Halaber, ekintza bakoitzean sakondu da, haren irismena, eragile sustatzaileak eta kolaboratzaileak eta jarduera-motaren araberako garapen-maila ezagutzeko. Informazioa ekintza-katalogo batean jaso da, eta hortik abiatuta idatzi da txosten hau.

**Trafikoaren eta bide-segurtasunaren kudeaketaren esparruan egindako jarduera guztien bidez, Bide Segurtasunaren Aldeko Euskal Itunaren sinatzaileek hartutako konpromiso guztiak bete dira.**

Hitzarmena sinatu duten eragileek **Itunaren konpromisoekin lotutako 322 ekintza** burutu dituzte edo horietan lagundu dute, eta horietatik:

- %94,1 Ituna sinatu duten eragileek sustatu dituzte, horietako batzuk sinatu duten edo sinatu ez duten beste eragile batzuen laguntzarekin.
- Ekintzen %40,1ean eragile batek baino gehiagok parte hartu dute edo sustatu dituzte, eta datu horrek indartu egiten du bide-segurtasunaren alorrean inplikatutako erakunde eta entitate publiko eta pribatuen arteko lankidetza-lanaren garrantzia, Itunaren 1., 2., 4. eta 8. konpromisoekin bat etorriz.

Itunaren esparruan garatutako ekintzek aniztasun hori islatzen dute, baita **sektore arteko ekimenak** koordinatzeko beharra ere. Tipologien arabera, ekintzen %15,5 zabalkundea edo kontzientziazio helburu duten Kanpaina edo komunikazioei dagokie; %15,2 Tresna, zerbitzu edo plataformei, eta %12,7 Ikastaro edo prestakuntzei. Planak eta estrategiak ekintzen %11,8 dira eta, azkenik, Azpiegitura edo teknologiaren garapena guztizkoaren %10,9ra iristen da. Zeharkako ikuspegi batetik koordinatutako ekintza-sorta horrek agerian uzten du eragileen arteko lankidetza funtsezkoa dela bide-segurtasuneko helburu komunak lortzeko




Sailkapen-tipologien definizioa 4. kapituluan ("Glosarioa") jasotzen da.

Txostenean baloratutako ekintza ia guztiak **garatuta** daude (%66,4). Horien artea, % 18,0 **aldian-aldiko** garapen-ekintzak dira: urtero edo modu programatuan egiten dira sinatzen duten eragileen jarduerearen barruan, aldizkakotasun jakin batekin. Beraz, konpromisoen betetzea Itun honen indarraldian zehar berrituz doa.

Ekintzen %30,7 abian daude, eta %2,8 programatuta edo proiektuan daude.

Gauzatutako ekintza bakoitza ez dago **konpromiso** bakar batekin lotuta; ekintza bakoitzak konpromiso asko har baititzake barne, elkarri estuki lotuta daude eta. Horrela, Ituneko 17 konpromisoen garapenari buruzko balorazioaren emaitza da konpromisoa lortzen laguntzen duten guztien gaineko ekintzen ehunekoa.

2. konpromisoa ("Erakundeen arteko lankidetza"), 3. konpromisoa ("Zero ikuspegia"), 5. konpromisoa ("Garraiobide aktiboak eta garraio publikoa sustatzea"), 6. konpromisoa ("Hiri-eredu berriak diseinatzea"), 11. konpromisoa ("Kolektibo kalteberak") eta 12. konpromisoa ("Kontzientziazioa eta sentsibilizazioa") izan dira garapen-maila handiena izan dutenak, hitzarmena sinatu duten eragileen ekintzei esker.

Konpromiso bakoitza betetzeko ekintzak (%)




**Zero Ikuspegia** Itunaren helburu orokorra da, eta, aldi berean, Itunaren 3. konpromisoa. Dimentsio bikoitz hori dela eta, Zero ikuspegia, batetik, bide-segurtasuna hobetzeko ahalegin orokorrak lerrokatzen dituen esparru estrategikoa da, eta, bestetik, berariazko konpromiso bat da, zeinaren betetze-maila ebaluatu egiten baita larri zauritutakoak eta hildakoak murriztea lortzeko eragin zuzena daukaten ekintzetan.

**16. konpromisoa, "Ituna ezagutzera ematea", eta 17. konpromisoa, "Gobernantza eta Ebaluazioa"**, Bide Segurtasunerako Euskal Itunaren prozesuaren beraren parte dira, Ituna garatzearekin eta gauzatzearekin zuzenean lotuta baitaude. Lan horiek, Trafiko Zuzendaritzak gidatuak, 2022an hasi ziren Ituna onartzen eta zabaltzen, eta, gaur egun, hasitako ekintzak aztertzen jarraitzen dute, jarraipen-txosten honetan islatzen den bezala. Horrela, konpromiso horiek, lortutako konpromisoak ez ezik, Ituna ezartzeko eta etengabe hobetzeko zikloaren funtsezko elementuak ere badira.

Garrantzitsua da azpimarratzea konpromiso bakoitzeko ekintzen balioa ez dela interpretatu behar konpromisoaren adierazgarritasunaren, irismenaren edo eraginkortasunaren neurri gisa. Grafikoan aurkezten den balioak konpromiso bakoitza garatzen laguntzen duten ekintzen ehunekoa islatzen du, egindako ekintza guztiekiko. Ikuspegi horrek ez dakar ekintza bakoitzaren balorazio kualitatiborik edo inpaktu espezifikoaren haztapenik.

# 3. ERAGILE SINATZAILE BAKOITZAREN EKINTZEN ETA KONPROMISOEN AZTERKETA



Eragile sinatzaile bakoitzari dagokionez, 2022ko azarotik 2024ko abendura bitartean bide-segurtasunaren arloan hartutako konpromisoak betetzeko egin diren ekintzak jasotzen dira.

Eragile sinatzaile bakoitzak sustatu dituen ekintzak eta laguntza eman duen ekintzak **kuantifikatzen dira**, eta **ekintza-tipologien** arabera banatzen dira. Eragile bakoitzak **garatutako Ituneko konpromisoak** zehazten dira, eta, azkenik, **eragile bakoitzak sustatutako ekintzak, haien deskribapena**, kolaboratzaileak eta horiek garatzeko konpromisoak zehazten dira.

Eduki hori oinarrituta dago eragile sinatzaile bakoitzak elkarrizketa-prozesuan eta ondorengo balorazioan emandako informazioan.

Zehaztu behar da eragile bakoitzak hartutako konpromisoak bete dituela, eta ekintzak egin dituela **bide-segurtasunaren arloan dituen eskumenen edo jardun-arloaren arabera.** Alde handia dago eragileen artean sektoreari, lurraldeari eta bide-segurtasunari eta mugikortasunari buruzko gai-esparruei dagokienez**.**

Beraz, garrantzitsua da adieraztea eragile sinatzaile bakoitzak garatutako ekintzen kopurua ez dela haien arteko konparazio-irizpidetzat hartu behar. Eragile batzuek bide-segurtasuna berariazko eta lehentasunezko eskumen gisa hartzen duten bitartean, beste batzuek zeharka lantzen dute, beren politika orokorretan txertatuz. Burututako ekintza-kopurua, edo horien tipologia, asko alda daiteke eragile bakoitzaren izaera eta helburuen arabera, eta horrek ez du esan nahi konpromiso edo eraginkortasun txikiagoa duenik Euskadiko Zero Ikuspegiaren betetze estrategikoari dagokionez.

**Eragile sinatzaileen aurkibidea**

## Herri administrazioa


1. Eusko Jaurlaritza........................................... 14
   - Lehendakaritza...................................................... 15
   - Segurtasun Saila.................................................... 16
   - Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna Saila.......................................... 30
   - Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.......................... 34
   - Mugikortasun Jasangarria Saila........................ 35
   - Hezkuntza Saila..................................................... 39
   - Justizia eta Giza Eskubideen Saila........................ 42
   - Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila......................................................................... 45
   - Ekonomia, Lana eta Enplegu Saila.......................... 46
   - Osasun Saila............................................................ 47
   - Kultura eta Hizkuntza Politika Saila...................... 50
2. Arabako Foru Aldundia.................................. 52
3. Bizkaiko Foru Aldundia.................................. 60
4. Gipuzkoako Foru Aldundia............................ 74
5. Bilboko Udala................................................. 84
6. Donostiako Udala.......................................... 93
7. Vitoria-Gasteizko Udala.............................................. 99


## Elkarteak edo erakundeak


8. EUDEL............................................................ 112
9. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)...... 115
10. Euskadiko Txirrindularitza Federazioa.......... 118
11. AESLEME....................................................... 120
12. EuskoFederpen............................................. 123
13. Stop Istripuak................................................ 125
14. Stop Bide Indarkeria...................................... 128
15. EITB................................................................ 134

# 1. Eusko Jaurlaritza

## GARATUTAKO EKINTZAK

**Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekintzak: 89**

**Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duen beste eragile batzuek sustatutako ekintzak: 21**




## HARTUTAKO KONPROMISOAK

Eusko Jaurlaritzak gauzatutako ekintzek, bere ekintza bateratuan, **Ituneko konpromiso guztiak** garatu dituzte:

- ✓ 1. Konpromisoa: Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda ezartzea.
- ✓ 2. Konpromisoa: Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea.
- ✓ 3. Konpromisoa: Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea.
- ✓ 4. Konpromisoa: Faktoreen arteko interdependentziari heltzea.
- ✓ 5. Konpromisoa: Mugikortasun aktiboa sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea.
- ✓ 6. Konpromisoa: Hiri-eredu berrien alde egitea.
- ✓ 7. Konpromisoa: Istripu-tasa handiko eremuak eta hobekuntza potentzial handiko eremuak ezabatzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea.
- ✓ 8. Konpromisoa: Kudeaketa integralaren alde egitea.
- ✓ 9. Konpromisoa: Bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde lan egitea.
- ✓ 10. Konpromisoa: Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea.
- ✓ 11. Konpromisoa: Kolektibo kalteberen babes berezian arreta jarriko duten politikak bultzatzea.
- ✓ 12. Konpromisoa: Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea.
- ✓ 13. Konpromisoa: Bide-erabiltzaileei arriskuei eta lege-ondorioei buruzko informazioa ematea eta errehabilitazioaren aldeko apustua egitea.
- ✓ 14. Konpromisoa: Laneko Bide-Segurtasuna Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketaren barruan sartzea.
- ✓ 15. Konpromisoa: Istripuaren ondoren erantzun eraginkorra ziurtatzea.

- ✓ 16. Konpromisoa: Itun honetako akordioak ezagutzera ematea.
- ✓ 17. Konpromisoa: Gobernantza-prozesu eraginkor bat abiaraztea.

# Eusko Jaurlaritza: Lehendakaritza

## Lehendakaritzak sustatutako ekintzak

### Legea edo araudia:

#### Agenda 2030 Gobernantza-eredua

2030 Agendaren helburuetako bat gobernantza-ereduei koherentzia ematea da, baita bide-segurtasuneko, trafikoko eta mugikortasuneko neurriei dagokienez ere, 2030 Agendaren helburuak bete eta gara ditzaten. Horretarako, gobernantza-foro bat sortu da (Eragile Anitzeko Foroa), eta gobernantza-eredu bat eratu da Eusko Jaurlaritzarentzat, hiru Foru Aldundientzat eta hiru hiriburuetako udalentzat. Foroak organo hauek ditu: Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta bost Lantalde (Gobernantza, Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050, Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-klimatikoa eta Eraldaketa Ekonomiko-digitala).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Plana edo estrategia:

#### V. Gazte Plana

V. Gazte Planak Eusko Jaurlaritzaren neurriak biltzen ditu gazteen emantzipazioa bultzatzeko, gazteen garapena errazteko eta gazteen eraldaketa sozialean inplikatzeko, eta gazteen emantzipazioari buruzko kezka sakoneko testuinguru batean kokatzen da, eta horrek Eusko Jaurlaritzaren lehentasun estrategiko bihurtu du. BSEPari dagokionez, "6. atala: Osasun Integrala"-ren barruan, neurri estrategiko gisa sartzen da trafiko-istripuei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa.

**Kolaboratzailea:** Eusko Jaurlaritza: Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Opengela proiektua

Opengela Euskadin hirien birsorkuntza zabaltzea ardatz duen egitasmoa da. Horretarako, kontzeptu berri bat erabiltzen du: auzo-bulegoak, leihatila-bakarra bezala arituko direnak auzokideak artatzeko. Bizi-kalitate handiagoko auzoak lortzean datza, energetikoki eraginkorragoak izanik, irisgarritasun unibertsalarekin (igogailuak...) eta suteen aurkako gutxieneko sistemekin.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Lehendakaritzaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Gida, dosierra edo gomendioak:

### Bigarren hezkuntzako ikasleentzako gida birtuala

Bigarren hezkuntzako ikasleentzako gida birtuala, generoari, klima-aldaketari eta bide-segurtasunari buruzkoa.

IHOBEk **sustatua**

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila

## Segurtasun Sailak sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020-2025

Euskadiko Segurtasun Publikoaren Plan Orokorra 2020-2025 segurtasun integraleko ikuspegi batetik eraikitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasunean inplikatutako erakunde guztien ekimenak jasotzen dituena, eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak koordinatutako lana islatzen duena. Lan horrek segurtasuneko zeharkako politikak egituratzen ditu, lerrokatuak, koordinatuak eta lehenetsiak, Euskadiko segurtasun publiko integralaren paradigma berri bat planteatuz, eraldaketa digitalak emandako aldaketa sakon eta beharrezko bat.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 |

### Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Segururako eta Jasangarrirako 2021-2025 Plan Estrategikoa

Trafiko Zuzendaritzaren Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Segururako eta Jasangarrirako 2021-2025 Plan Estrategikoa bat dator Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak ezarritako jarraibideekin. Hori lortzeko, bide-segurtasunaren erronkan inplikatutako eragile publiko eta pribatu guztien lankidetza beharko da, eta helburu argi bat identifikatzen du: trafiko-istripu baten ondorioz Zero Biktima ikuspegiarekin istripu-tasa murriztea, eta, horrekin, Euskadi bide-segurtasunaren eta trafikoaren kudeaketaren arloan Europa mailan erreferente gisa kokatzea, hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua murrizteko helburu orokorrak betetzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** | **13** | **14** | **15** | **16** | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Trafiko Zuzendaritzaren urteko memoria

Urteko Memoriak Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzak egindako ekintza nagusiak jasotzen ditu. Euskadiko errepide-sareko ezbehar-tasaren balantzea eta mugikortasunaren portaera ere eskaintzen ditu.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa

Trafiko-istripuetan eragina duten faktoreei buruzko datuak ezagutzeko, istripu-tasaren arazoaren garrantzia zehazteko eta biktimak eragiten dituzten trafiko-istripuen inguruabarrak aztertzeko aukera ematen duen dokumentua.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Istripu-tasari buruzko hileroko txostenak

Istripu-tasaren bilakaerari eta Alkoholemia / Drogak kontrolei buruzko txostenak (Ertzaintza).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Euskadiko gazteen kolektiboari eta Bide-Segurtasunari buruzko ikerketa

Honetan aztertzen dira EAEko gazteen bide-segurtasuneko eta mugikortasuneko jokabideetan eragina duten faktoreak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Trafikoari buruzko azterlanak

Bide-segurtasuneko azterlanak edo txostenak: errepide-sareko hainbat puntutan gertatzen diren bide-segurtasunarekin lotutako egoeren analisia. Horrez gain, txosten bat egiten da *machine learning* teknikak erabiliz trafikoko gorabeheren arriskua aurreikusteko sistemaren proposamen bati buruz.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Gida, dosierra edo gomendioak:

### Materialen eta baliabide didaktikoen katalogoa

Trafiko Zuzendaritzak herritarren eskura jartzen du material eta baliabide didaktikoen katalogo zabal bat, herritarren hainbat kolektibori zuzendua: familiei, hezkuntza-sistemako kideei, kolektiboei (motor-gidariak, txirrindulariak...) eta adinekoei, bai eta beste hartzaile batzuei ere (udalerriak, autoeskolak, etab.).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | **6** | 7 | **8** | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Eskolako agenda

2022/2023 eta 2023/2024 ikasturtetan eskola-agendaren aleak banatu zitzaien Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko ikasleei.

**Kolaboratzaileak:** Ikastetxeak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### ITS ekipamendu berriak

Bi radar kabina berri instalatu dira, A-124 errepidean, Guardian, eta BI-30 errepidean, Kukularran. Gainera, errepideko aforo-ekipoen berrikuntza teknologikoa egin da, lakio magnetikoko aforatzaileen ordez zoruan intrusiokoak ez diren aforatzaileak jarriz, azken horiek radar-teknologia erabiltzen dute eta. Horrez gain, ikusmen artifizialeko kamerak instalatu dira, matrikulak irakurtzeko, trafikoari buruzko azterlanak eta analisiak egiteko helburuarekin.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzari atxikitako administrazio-unitatea, Euskadiko errepide-sarean herriz kanpoko zirkulazioa eta trafikoa kudeatzeaz arduratzen dena, trafikoa kudeatzeko sisteman zehaztutako sistemen eta estrategien bidez.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Garraio bereziak Kudeatzeko Tresna: *Beretrack*

Tresna berri baten garapena. Tresna horren bidez, hauexek egin ahal izango dira: garraio berezien neurriak eta pisuak kontuan hartuta, garraio berezi horiek egin ditzaketen ibilbideak kalkulatu; bidaiak baimendutako ibilbideetatik egiten diren kontrolatu eta horren jarraipena egin; eta sortzen den informazio guztia ustiatu garraio-mota horiek kudeatzeko politikaren barruan erabaki hobeak hartzeari begira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

### GeoTraffic tresna

GPS-datuetan oinarrituta, txosten historikoak egiten eta trafikoaren egoera monitorizatzen duen GeoTraffic aplikazioaren prestazioen hobekuntza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Intentsitateak kalkulatzeko tresnak

Intentsitateak kalkulatzeko tresnaren prestazioak hobetu dira; eta horretarako, eredu-kurbak hobetu dira eta emaitzak kalkulatzeko eta aurkezteko erabiltzen den datu-base historikoa handitu da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-segurtasun arloko azterlanak egiteko analisi-tresnak: “Road Safety”

“Road Safety” izeneko tresnaren prestazioak hobetu dira. Tresna horrek istripuetan egon ohi diren faktoreak eta kausak aztertzen laguntzen du, bereziki abiadura, kalitate handiagoko bide-segurtasuneko azterlanak lortzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Irudiak trukatzeko tresna

Bideoak trafikoko kameretatik EITBra bidaltzeko tresna berritu da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Laneko bide-segurtasunari buruzko APPa

Lan arlora begirako aplikazioa da, bide-istripuetan gertatzen diren arrisku-faktore nagusien inguruan sentsibilizatzeko. Tresna horrek istripua aztertzen du ikuspegi desberdinetatik eta horretarako teknika interaktiboak, teknika inmersiboak, 360º esperientziak eta *cardboarda* erabiltzen ditu.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Udaltzaingoei zuzendutako ikastaroak

- Bide-Hezkuntzako oinarrizko ikastaroa: agenteek bide-hezkuntzako begiraleen funtzioak bete ahal izateko pentsatua.
- Bide-Hezkuntza hobetzeko ikastaroa.
- Substantzia estupefazienteen eraginpean dauden gidariak detektatzeari buruzko ikastaroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Ertzaintzari zuzendutako ikastaroak

- Bide-Segurtasunaren arloko oinarrizko prestakuntza.
- Bide-Segurtasunaren arloko espezializazio-prestakuntza.
- Bide-Hezkuntza, "Prebentzioa komunikaziotik".
- Motozikletak Gidatzeko 0 eta 1 Mailako ikastaroa.
- Ibilgailuak irekitzeari eta automobilaren sistema elektroniko berriei buruzko ikastaroa.
- Alkoholaren eraginpean dauden gidariak detektatzeari buruzko ikastaroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Errepideko Garraioaren Kontrolari buruzko Ikastaroa, Miñoien sekzioari zuzendua

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Homologazio-prestakuntza ITSen mantentze-lanetarako azpikontratetako langileentzat

Obren seinaleztapen mugikorrerako prozedurari buruzko urteko prestakuntza. Horren helburua da arrisku-egoerak kudeatzeko balio duten ezagutzak helaraztea, neurri seguruak erakusteko eta horien inguruan kontzientziatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | 10 | 11 | **12** | **13** | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak

Euskadiko Administrazio Orokorreko langileei zuzenduta dago, lan-jardueraren ondorioz errepidean ibilgailuak erabili behar dituztenean segurtasuna sustatu eta kudeatzeko. 2022 urtean egin ziren.

**Kolaboratzailea:** Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak, Hezkuntza Sailaren menpeko profesionalentzat

Trafiko Zuzendaritzako Prestakuntza arlotik egin ziren, 2022. eta 2023. urteetan.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Hezkuntza Saila.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Mugikortasun seguru eta jasangarrirako teknikariaren ikastaroa

Goi-mailako zikloa, gidarien prestakuntzan diharduten enpresetako profesionalak prestatzeko, gidatzeko administrazio-baimenak lortzeko eta, oro har, bide-segurtasunaren arloko prestakuntzarako; edo erakunde publiko eta pribatuetan bide-hezkuntzarekin, laneko bide-segurtasunarekin eta mugikortasun seguru eta jasangarriarekin lotutako eginkizunak betetzeko.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Hezkuntza Saila.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Bide-prestakuntzako irakasle izateko gaitasun-agirirako kurtsoak

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Gidabaimena eta puntuak berreskuratzeko ikastaroak kudeatzea:

Puntuak berreskuratzeko sentsibilizazio eta berreskuratze-ikastaroak, edo gidabaimena edo lizentzia berreskuratzeko, puntu guztiak galduz gero.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## "Jar zaitez nire gurpiletan" estrategia

Motozikletak segurtasunez gidatzeko ikastaroak, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak antolatuak. Doako prestakuntza da, Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian instalatutako zirkuitu seguru batean ematen dena. Helburua trebetasunak hobetzea da, errepidean kalteberetako bat den motor-gidarien kolektiboan istripuak prebenitzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## "Don't be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik" / "Don't be Dummy! Para ti no hay repuesto(s)" proiektua

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren programa, Euskadiko gazteei zuzendua, bide-segurtasunaren, gidatze arduratsuaren eta trafiko-istripuen prebentzioaren arloan sentsibilizatzeko.

Programak Dummy pertsonaia du oinarri (inpaktu-probetarako maniki bat), eta hainbat egoera eta emozio esperimentatzen ditu ondorio batera iristeko: " Zuk ez duzu ordezkorik". Prebentzioa ezinbesteko faktorea da amaiera dramatikoak saihesteko.

**Kolaboratzaileak:** Eusko Jaurlaritza: Justizia eta Giza Eskubideen Saila - Justizia Zuzendaritza / AESLEME / Stop Istripuak / Ertzaintza / Udaltzaingoak / Osakidetza / Berriztu.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## "Arriskua gutxien espero duzunean dago - 100 aldiz begiratu" / "El riesgo está donde menos te lo esperas - Anda con 100 ojos" programa

Bide-segurtasunaren arloko sentsibilizazio-programa, 65 urtetik gorakoentzat, kolektibo kaltebera hori trafiko-istripuetatik babesteko eta istripu horiek prebenitzeko ekimen bat da. Programak hainbat jarduera ludiko eta pedagogiko egiten ditu kalean bertan edo gizarte-etxeetan, Euskadiko hainbat herritan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### “Atzera bueltarik ez - Antzerki Forum” / “Sin vuelta atrás – Teatro Fórum” programa

Helduen Hezkuntzako (HHE) ikastetxeetako ikasleei zuzendua, helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxeetako ikasleak bideko arrisku-jokabideez kontzientziatzeko eta horiek prebenitzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### “Norabide guztiak - Antzerki Forum” / “Cambio de sentido – Teatro Fórum" programa

14 eta 16 urte bitarteko gazteen artean bideko jokabide arriskutsuak prebenitzeko helburua daukana. Dinamika parte-hartzailea. Bertan, bide-segurtasun arduratsuarekin eta seguruarekin lotutako gazteen ekintza erreal bat kontatzen da, bai eta arlo horretan jardunbide desegokiek izan ditzaketen ondorioak ere.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### “Gerta dakizuke” / “Te puede pasar” prebentzio-kanpaina

Bide-segurtasunean trebatutako profesional-talde batek gidatutako konferentzia, DBHko ikasleei bide-istripu baten atzean dagoen errealitatea eta saihestu behar diren arriskuak erakusteko, bai eta norberak hartzen dituen arriskuak ere, ezagutu eta saihestu ahal izateko.

**Kolaboratzailea:** AESLEME.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### TASEVAL (Bide-segurtasuneko tailerrak). Euskadiko espetxeetan bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonentzako espetxe-tratamenduaren programa

Espetxean bide-segurtasunaren aurkako delituak egiteagatik zigortuta dauden pertsonei kontzientzia pertsonalaren, gaitasunen garapenaren, justizia leheneratzailearen, lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako prebentzioaren eta kolektiboaren gizarteratzearen eta laneratzearen aldeko ikuspegietatik tratamendua emateko prestakuntza, hezkuntza, terapeutika eta gizarte eta kultura izaerako proiektuen multzoa. Proiektu horiek PITen parte dira, eta ezarpena zuzenean edo 3 espetxeetako lantalde teknikoetako langileek gainbegiratuta egingo da, kanpoko langileen laguntzarekin.

Emanaldi horien artean, "Bidea aldatzeko antzerkia" azpimarratu behar da, antzerkiaren eta gorputz-adierazpenaren bidezko proiektu terapeutikoa bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonentzat. Horretan hauek guztiak lantzen dira: gizarte trebetasunak (entzutea, enpatia, talde-lana, konpromisoa, adierazpen asertiboa, etab.), sormena eta askatasuna, gizartearen aldeko bizikidetza-arauaren arriskuaz eta urraketaz jabetzea, gatazkak konpontzeko gaitasuna, beste estrategia batzuk, motibazioa eta norberaren aldaketa edo eraldaketa indartzea

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Justizia eta Giza Eskubideen Saila – Justizia Zuzendaritza.

**Kolaboratzailea:** AESLEME.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Euskal Autonomia Erkidegoko Bide Segurtasun Batzordea

Organo honek bi helburu ditu:

- Bide-segurtasunean eragina duten eskumenak dituzten Administrazio Publikoen koordinazioa bermatzea.
- Bide-segurtasuna hobetzeko aholku-organoa izatea, jarduera-eremu horretan diharduten erakunde publiko eta pribatuen topaketa eta parte-hartzea bultzatuz.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | **6** | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** | 17 |

### Innovabide sarea

Innovabide Sarea 2017an jarri zen abian, “in itinere” (lanerako joan-etorrietan) edo “in mision” (haien lana egiteko, ibilgailua gidatzen duten bitartean) gertatzen diren istripuen ondoriozko hildakoen edo larri zauritutakoen kopurua %40an murrizteko helburuarekin. 2023. urtearen amaierako datuen arabera, bide-segurtasunarekin konpromisoa daukaten sektore ezberdinetako 70 enpresa atxiki zaizkio sare horri kudeaketa-planen bidez.

2024an errekonozimendu bat eman zitzaien bide-segurtasunaren arloan konpromisoa eta jardunbide egokiak zituzten enpresa edo klusterrei, dela haien kudeaketagatik, dela erakundea osatzen duten pertsonen artean eta baita gizartearen artean ere laneko bide-segurtasunaren kultura sustatzeko ekintzak ezartzeagatik.

**Kolaboratzaileak:** Enpresak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | **12** | **13** | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Kontrola edo kudeaketa:

### Trafikoaren zaintza- eta kontrol kanpainak

Trafiko Zuzendaritzak Ertzaintzak eta Udaltzaingoek urtean zehar egiten dituzten zaintza- eta kontrol-kanpainak planifikatu eta koordinatzen ditu. Zaintza eta kontrol kanpainen helburuak bide-segurtasuna hobetzea eta trafiko-istripuen ondoriozko biktimen kopurua murriztea dira. Hori lortzeko, kanpainak arrisku-faktoretzat hartzen direnak zaintzera bideratzen dira.

**Kolaboratzaileak:** Ertzaintza / Udaltzaingoak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Neguko Bidezaintza Plana

Autobideen emakidadunen eta erakundeen arteko koordinazio-plana. Baliabideak mobilizatzen dituzte, iragarpen meteorologikoen eta EAEko errepideetan gertatzen diren eraginen arabera. Plan horrek Foru Aldundietako eta autobideetako elurra kentzeko makinak, tona askoko ibilgailuak kentzeko garabiak eta koordinazio eta zaintza-lanetarako bestelako laguntza-ibilgailuak aktibatzeko aukera jasotzen du, eta horiei Ertzaintzaren trafikoko lurralde-unitateetako patruilak gehitzen zaizkie.

**Kolaboratzaileak:** Ertzaintza / Foru Aldundiak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Trafikoa arautzen duten neurri bereziak

Ebazpenen bidez:

- Ibilgailu eta garraio astunen zirkulazio-egunak arautzen dira.
- Operatibo bereziak egiten dira, hala nola udako "irteera-operazioa".

Baimenen bidez, hiriarteko bideak honako hauetarako erabiltzea baimentzen da:

- Kirol ekitaldiak.
- Garraio bereziak (neurriak edo salgaiak, etab.), euromodularrak.
- Obrak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bideko sentsibilizazio eta berreziketa-zentroen baimenen kudeaketa

Zentro batek, bideko sentsibilizazio- eta berreziketa-ikastaroak eman ahal izateko, irekitzeko baimena eduki behar du. Baimenaren indarraldia bost urtekoa da eta beste bost urteko aldi batez luza daiteke, aurretik baimenaren titularrak edo bere lege-ordezkariak bide elektronikotik Trafiko Zuzendaritzari eskatu badio, eta baimena emateko eskatzen diren betekizunak betetzen jarraitzen duela egiaztatu ondoren.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Mugikortasun seguru eta jasangarrirako LHko irakasle espezialista gisa jarduteko baimenen kudeaketa

"Gidatzeko teknikak" eta "Gidatzearen irakaskuntza praktikoa" lanbide-moduluetan irakasle espezialista izateko, beharrezkoa da, besteak beste, Trafiko Zuzendaritzak emandako jarduera-baimen baten titularra izatea, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez izapidetutakoa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Trafiko Zuzendaritzaren jardunaldi profesionala "Kolektiborik kalteberenentzako Bide Segurtasunerako eredu berri bat Euskadin"

2022ko azaroaren 16an Bilbon egindako jardunaldia, nazioarteko eta tokiko hizlarien parte-hartzearekin. Bertan, hiri-ingurune konplexuetako joan-etorriei eta teknologiak mugikortasun eraginkor, seguru eta jasangarri bat sortzeko duen zereginari buruzko gaiak jorratu ziren. Kalteberatasunaren kontzeptua eta mugikortasun berriari lotutako konponbideak ere jorratu ziren, eta, azkenik, Euskadin dibertsitate funtzionala duten pertsonen kolektibo kaltebera babesteko ezagutza globalari buruz hitz egin zen.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Trafiko Zuzendaritzaren jardunaldi profesionala “Mugikortasun jasangarriaren erronka Euskadin: Ekimenak eta irtenbideak”

2023ko azaroaren 15ean Bilbon egindako jardunaldia, Euskal Autonomia Erkidegoko garraioaren eta mugikortasunaren jasangarritasuna hobetzeko estrategiak eztabaidatu eta aztertzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | **7** | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Bide segurtasuneko aholkuak herritarrentzat online

Trafikoko web-orrian bide-segurtasunari buruzko aholkuak jartzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Informazio eta publizitate-ekintzak

Aplikazio eta sare sozialetako hedapen-kanalen bidez.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Komunikabideei informazioa emateko ekintzak

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | **16** | 17 |

### Sentsibilizazio-kanpainak komunikabideetan

Errepideko ezbehar-tasa murrizteko sentsibilizazio-bideoa:

- "VISION ZERO. Erripidean heriotza bakar bat ere ez baita onargarria" /"VISION ZERO. Porque en carretera ninguna muerte es aceptable" .
- "Gogoratu, etxetik irtetearen onena itzultzea dela" /"Recuerda que lo mejor de salir de casa es volver a ella".

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Segurtasun Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

### Plana edo estrategia:

### Substantzia psikoaktiboak kontsumitzen dituzten gidarien berrerortzea prebenitzeko plana

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Osasun Saila].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Gida, dosierra edo gomendioak:

### Bideko Ezbeharren Biktimei Berehalako Arreta emateko Praktika Onen Gida

Gida honek istripuaren lehen uneetarako polizien, suhiltzaileen eta osasun-larrialdietako kidegoen jarduerak koordinatzeko irizpideak jasotzen ditu.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 |

### Azpiegitura edo teknologia:

### Azpiegiturako programa Europarrak

Trafiko Zuzendaritzak Europako proiektu hauetan parte hartu du: Arco Atlántico 3. Fasea eta EU-EIP (European ITS Platform), Europa barneko errepideen sarean ITS (Intelligent Transport Systems) zerbitzuen eta sistemen ezarpena sustatzeko helburua daukana.

Europako Batzordeak **sustatua.**

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Prest Gara kurtsoa. “Bide-arriskuen prebentzioa ikasgelan”

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Hezkuntza Saila - Hezkuntza Sailburuordetza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Testigantza Arkauten

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | **14** | **15** | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Bide Segurtasunari buruzko Goi Mailako Taldea

Estatu mailako trafikoko eta bide-segurtasuneko arduradun nagusien bilera, errepideetako heriotzak nola murriztu hausnartzeko eta herritarren mugikortasunari eta segurtasunari mesede egiteko ezagutzak eta esperientziak trukatzeko.

Europar Batasuneko Kontseiluak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Trafiko Istripuetako Biktimak Oroitzeko Munduko Eguna

[Stop Istripuak eta Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 |

### Mugikortasun seguruaren eta jasangarriaren kongresua (IFEMA)

Global Mobility Call kongresuan parte hartu da, Madrilen 2023ko urrian, “La digitalización de la movilidad terrestre (lurreko mugikortasunaren digitalizazioa)” izeneko mahai ingurua moderatuz. Horretan, mugikortasun modu berriei buruz hitz egin da, baita horiek dakartzaten erronkei aurre egiteko moduei buruz ere, teknologiaren eta simulazioaren bitartez.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | 8 | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## RACVN topaketa

Trafikoko zuzendariak Real Automóvil Club Vasco Navarrok Bizkaiko hiriburuan antolatutako Mugikortasunaren aldeko Herritarren XXI. Topaketa inauguratu zuen, 2023ko azaroaren 23an. Topaketa horretan ibilgailuak azken mendean izan duen bilakaera aztertu zen eta Estibaliz Olabarrik bere hitzaldian bide-segurtasunaren ikuspegia gaineratu zuen, ibilgailu horren historiarekin paraleloan doa eta.

Real Automóvil Club Vasco Navarrok **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## CNAE konbentzioa

Trafikoko zuzendariak Autoeskolen Nazioarteko Konbentzioaren 52. edizioan parte hartu zuen, eta horren izenburua izan zen “Bide-segurtasuna, guztion erronka”. Bartzelonan egin zen, azaroaren 23tik 26ra eta bertan bide-prestakuntzaren sektoreko 300 profesional elkartu ziren. Konbentzio horrek balio izan zuen bide-istripuen arazo handiaz eta sentsibilizazio-ikastaroen garrantziaz eztabaidatzeko, eta mugikortasuna eta segurtasuna hobetzea lortzeko.

Autoeskolen Konfederazio Nazionalak **sustatua** (CNAE).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## “Ikusi eta ikasi. Kalitatezko espazio publiko baten alde” argazki lehiaketa

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## “Ikusi eta Ikasi” erakusketa ibiltaria

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Saila

## Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailak sustatutako ekintzak

### Plana edo estrategia:

#### Airearen Kalitatearen Euskadiko 2030 Plana

2030erako Euskadiko Airearen Kalitate Plana 5 ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da. Ardatz horiek Euskadiko airearen kutsadura eta kalitate-mailak hobetzeko funtsezko erronkei heltzen diete, pertsonen osasunean eragin negatiboak minimizatzeko:

1. Kutsadura atmosferikoa eta osasuna.
2. Mugikortasun jasangarria eta hiri-berroneratzea.
3. Kutsadura funtsezko beste sektore batzuetan murriztea.
4. Airearen kalitatearen kontrola, jarraipena eta eboluzioa hobetzea.
5. Herritarrak atmosferaren kutsadurari buruz prestatzea, sentsibilizatzea eta kontzientziatzea.

Ardatz estrategiko horiek jarduera-ildo batzuetan hedatzen dira, eta horietako bakoitzak helburu horiek lortzeko garatu beharreko ekintza-multzo bat biltzen du. Ekintza horiek hainbat alderdi jasotzen dituzte, bai emisio kutsatzaileak murrizteari dagokionez, bai Euskadiko airearen kalitatea hobetzeko beste irtenbide batzuk indartzeari dagokionez.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Gida, dosierra edo gomendioak:

#### Eskola-ingurune osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko eskuliburua

Eskuliburuaren helburua da eskola-ingurune osasungarriak sortzeko eta gobernantza-eredua definitzeko hainbat ikuspegitako irizpideak biltzea eta integratzea: klima-aldaketarekiko egokitzapena, osasuna eta ongizatea, hezkuntza, ingurumena, parte-hartzea, berdintasuna, inklusioa, sozializazioa, segurtasuna eta abar; eskola-ingurunea hezkuntza-komunitatearen (ikasleak, irakasleak eta guraso-elkarteak), herritarren, zerbitzuak ematen dituzten beste baliabide tekniko batzuen eta tokiko administrazioaren arteko espazio partekatu gisa ulertuta.

**Kolaboratzaileak:** Eusko Jaurlaritza: Osasun Saila/ IHOBE/ Udalsarea 2030.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### “Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa” argitaratzea

“Tokiko 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik. Gida praktikoa” Udalsarea 2030ko Udalerri Jasangarrien Euskal Sareko udalerrietako eta eskualdeetako teknikariek osatutako gogoeta-talde batek emandako emaitza da, 2030 Agendak toki-erakundeei eskaintzen dizkien aukera nagusiak identifikatzeko.

Agenda honen argitalpenaren bidez, tokiko 2030 Agenda bat egiteko beharrezko jarraibideak eman nahi dira, Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) eta horien xedeak eta adierazleak udal-testuingurura egokituta, mugikortasun jasangarriarekin, garraioarekina eta bide-segurtasunearekin lotutako jarraibideak barne.

**Kolaboratzaileak:** IHOBE / Udalsarea 2030.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Ingurumen Jardunbide Egokien sarea

IHOBEk Ingurumen-jardunbide egokien atal bat du bere webgunean, irismen tematiko zabalarekin. Katalogoaren barruan, garraioan eta mugikortasunean segurtasuna lortzera bideratutako ekintzak ere sustatzen dira.

**Kolaboratzailea:** IHOBE.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Tokiko 2030 Agendari buruzko formakuntzak

Udalerriei zuzendutako 2030 Agenda ulertzeko eta erabiltzeko ikastaroen programa. Hiri-mugikortasun seguruari buruzko alderdiak barne hartzen dira.

**Kolaboratzaileak:** Udalerriak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Udalsarea 2030ren 2026ko Plan Estrategikoa

Udalsarea 2030ren 2026ko Plan Estrategikoak Euskadiko tokiko jasangarritasunean aurrera egiteko lehentasunezko jarduera-ildoak ezartzen ditu, udalaren ahaleginak 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH) lerrokatuz. Ekintza klimatikoa, ekonomia zirkularra, biodibertsitatea eta gobernantza kolaboratiboa indartzeko estrategiak biltzen ditu, tokiko eremuan trantsizio justu eta jasangarria sustatuz. Definitzen diren ekintzen artean, tokiko jasangarritasun helburuak eta udalerrietan mugikortasun jasangarria lortzeko lan egingo da.

Udalsarea 2030ak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Udalsarea 2030 e-MUGI plataforma

Online aplikazioa, Udalsarea 2030ek sareko udalen eta eskualdeko erakundeen eskura jartzen duena, garapen jasangarriarekin eta politika publikoen ebaluazioarekin eta horiek gizarteari jakinaraztearekin konprometitutako toki-erakundeen tokiko jasangarritasun-planen kudeaketa eta jarraipena errazteko. e-MUGI aplikazioak aukera ematen dio udalerri bakoitzari tokiko jasangarritasunari lotutako tokiko ekintza-planei buruzko informazio guztia sartzeko, ikuspegi integral batekin, alderdi sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak eta gobernantzakoak kontuan hartuta.

Haren diseinuari esker, informazio hori "Udaleko ildo estrategikoak", "Jarduketa-programak", "Planifikatutako ekintzak" eta "Jarduerak" ataletan bereiz daiteke, aldez aurretik definitutako garapen jasangarriko tokiko helburuak lortzea errazten baitute. Era berean, informazioaren jarraipen sistematikoa egiteko eta emaitzak erregistratzeko aukera ematen du.

Udalsarea 2030ak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | 5 | **6** | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Emisio Gutxiko Eremuen (EGE) lantaldea

Emisio Gutxiko Eremuen taldeak (EGE), beren udalerrietan EGEa integratzera behartuta dauden udalak eta prozesuan lagun diezaieketen udalaz gaindiko erakundeak biltzen ditu. Aldizkako bilerak egiten dira aurrerapenak partekatzeko eta modu koordinatuan lan egiteko. EGEaren ezarpena Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legean jasotzen da. EGEek, airearen kalitatea hobetzeaz gain, bide-segurtasuneko alderdiak arautzen dituzte.

Udalsarea 2030ak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Ekoetxea sarean mugikortasun seguru eta jasangarrira bideratutako kontzientziazio-jarduerak

Ekoetxea ingurumen-zentroen sareak (Urdaibai, Meatzaldea, Txingudi eta Azpeitia) hezkuntza-esperientziak eta berariazko programak eskaintzen ditu herritarrak ohitura jasangarrien inguruan kontzientziatzeko. Bizikletaren erabilera segurua eta oinezko joan-etorriak alternatiba seguru eta ekologiko gisa sustatuko dituzten tailer eta jarduera espezifikoak antolatzen dira.

Euskadiko Ingurumen Zentroen Sareak (Ekoetxea) **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Garraio jasangarriari buruzko sentsibilizazio-kanpainak

Euskadiko udalerriek Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astean parte har dezaten sustatzea, mugikortasun jasangarriaren balioak sustatzeko eta zabaltzeko, tokiko agintariak zein herritar guztiak mugikortasun jasangarria lortzearen garrantziaz kontzientziatuz, udalerri horiek espazio osasungarriagoak, seguruagoak eta bizigarriagoak izan daitezen.

Udalsarea 2030ak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila

## Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak sustatutako ekintzak

### Legea edo araudia:

#### Lurralde Plan Partzialen tramitazioa

Lurralde Plan Partzialek barne hartzen dituzte motordunen trafikoaren alternatiba jasangarriak bilatzeko osagaiak. Antolaketarako gidalerroetako bat da joan-etorrietarako modu guztietarako hiri-eredu jasangarri bat ezartzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Plana edo estrategia:

#### Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren garapena

Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agendaren garapenaren barruan mugikortasun jasangarriaren helburuak txertatzea. Agenda hau Nazio Batuen Hiri Agenda Berrian oinarrituta eta Garapen Jasangarrirako Helburuak garatuz egindako dokumentua da, "hiriak leku inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzeko, inor ez dadin atzean geratu". 8 lehentasun estrategiko ezarri ziren, 31 esku-hartze ardatzetan eta 105 jarduera-ildotan egituratzen direnak. Bultzatu 2050aren lanen esparruan, hiri erresilienteei eta hiri inklusiboei buruzko txostenak garatzen dira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | **3** | **4** | 5 | **6** | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Programa edo neurria:

#### Hiri-berroneratzeko proiektua Euskadi auzoetan

Euskadiko 25 auzoren hiri-berroneratzeko proiektua, hainbat planen bidez garatua (Berpiztuz, etab.). Auzo horien inguruak berrurbanizatzeko irizpideek osagai bat dute, bide-segurtasunaren eta mugikortasun jasangarriaren ikuspegitik, ibilgailuen trafikoko eremuak kenduz eta oinezkoentzako guneak eta eremu jasangarriagoak indartuz. Behin eta berriz egiten den proposamenetako bat auzoen erdigunea zeharkatzen duten saihesbideak ezabatzea eta ibilgailuen trafikoa desbideratzeko alternatibak ezartzea da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | **6** | **7** | **8** | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Hiri-kalteberatasunaren inbentarioa/azterlana

Hiri-kalteberatasunaren azterketa edo inbentarioa; alderdi garrantzitsu bat irisgarritasuna da, eta hiri-mugikortasunetik duen lotura eta ikuspegia.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Programa edo neurria:

### Hiri jasangarriak proiektua

Ikerketa eta garapen-proiektua, Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera hiri jasangarriak garatzeko lan egiten duena. Eusko Jaurlaritzak finantzaketa ematen du.

Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Mugikortasun Jasangarriaren Saila

## Mugikortasun Jasangarriaren Sailak sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Euskadiko Mugikortasun Jasangarrirako Plana

Euskadiko Mugikortasun Jasangarrirako Plana 2 urteko epean onartu beharko da, azaroaren 9ko 11/2023 Legea indarrean sartzen denetik aurrera.

Pertsonen mugikortasunera eta salgaien logistikara bideratutako garraiobideen koordinazio eta integrazio intermodalean oinarritutako plangintza-tresna da. Honako hauek jasoko ditu:

- Egungo egoeraren diagnostikoa.
- Jarduteko printzipioak eta lortu beharreko helburuak.
- Helburu horiek lortzeko hartu beharreko neurri orokorrak.
- Bertan jasotako plangintzari lotutako finantzaketa-mekanismoen zenbatespena, bai eta plangintza horri lotutako inbertsio-programa bat ere.
- Kostuak eta onura ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak aztertzea.
- Kudeaketa-eredua eta planaren jarraipena, ebaluazioa eta berrikuspena egiteko sistema, estrategiaren eta planifikatutako neurrien egokitasuna egiaztatzea ahalbidetuko duten adierazleak ezarrita.

Euskadiko Mugikortasun Jasangarrirako Planaren indarraldia 10 urtekoa izango da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** | **13** | **14** | **15** | 16 | 17 |

### Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen Plan Orokorren garapena

Azken planean Istripu Ugariko Bide-Zatiak (IUB) identifikatu eta sailkatu ziren. Eremu horietako kostu txikiko jarduerak Foru Aldundiek egiten dituzte, baina garrantzi ekonomiko eta neurri handiagoko jarduerez ere arduratzen dira. Errepideen Plan Orokorren jarraipen-txostenak ere egiten dira.

Errepideen Planean, garraioetan inteligentzia-sistemak txertatzeko beharra ere aztertzen da. Hurrengo Plan Orokorrean analisi-ikuspegi hori txertatzea aurreikusten da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Programa edo neurria:

### Konektatu proiektua

Europako Trenbide Agentziak bultzatutako segurtasun positiboko kultura baten esparruan ezarritako proiektua. Euskotrenen sinatzaileetako bat izan eta gero 2018ko lehen goi-bileraren ondoren, kultura hori eta Konektatu proiektua ezartzen hasi ziren. Hobekuntza teknologikoak ezartzeaz gain, segurtasunaren giza alderdia sustatzen da. Adibidez, kontzientziazioan sakontzen da, operadoreak segurtasunean duen erantzukizunean, parte-hartzea hobetuko duten konfiantzazko klimak sustatzen dira, etab.

**Kolaboratzaileak:** Euskotren / Euskal Trenbide Sarea / Eslovenia, Portugal, Alemania, Hungaria, Frantzia eta Holandako Ordezkaritzak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Bide-Zoruen Mahaiaren argitalpenak

Errepideetako bide-segurtasuna hobetzeko helburua duen lantaldean parte hartu da (bide-zoruen mahaia). Dokumentazio teknikoa argitaratzen du, errepide-sarean ezarri beharreko gomendioekin, eta azken gomendioa bide-sarearen baldintzak mantentzeko eta hobetzeko zoruen gainazala berritzeari buruzkoa da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Dirulaguntzak edo finantzaketa:

### Errepide bidezko garraio publikoan teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko dirulaguntzak

Garraio-enpresentzako urteko deialdia, sektorearen eraginkortasuna, jasangarritasuna eta segurtasuna hobetzeko. Helburua da istripuak murriztea helburu duten sistemak ezartzea, norberaren, azpiegituren eta mugikortasun aktiboko bitartekoak erabiltzen dituzten pertsonen kalteak saihestuz.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten bidaiarien garraioko enpresa pribatuak eta salgaien errepideko garraioan esku hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzeko laguntzen deialdi publikoa

Errepide bidezko garraio-zerbitzuak ematen dituzten bidaiarien garraio-enpresa pribatuak eta salgaien errepideko garraioan esku hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzeko laguntza-programa, urriaren 25eko 902/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan – Europar Batasunak finantzatua – Next Generation EU.

**Kolaboratzailea:** Europar Batasuna.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### ERTMS sistema ezartzea

Europako ERTMS (European Rail Traffic Management System) segurtasun-sistemak trenbideko segurtasun-sistemak estandarizatzen ditu, seinaleztapenari, konektoreei eta abarri dagokienez, segurtasuna teknologikoki elkarreragingarria eginez. Horrela, abiadura-marjinak, sistemak berak trenean egin ditzakeen irakurketak, eguraldi txarra dagoenean, bideko gorabeheren irakurketa eta abar inplementatzeko aukera ematen du, era guztietako ezbeharren edo gorabeheren aurrean erantzun-plus bat emanez. Horrek esan nahi du simulagailu berrietan inbertitu behar dela, gidariak sistema berriak erabiltzeko prestatzeko.

**Kolaboratzailea:** Euskotren / Euskal Trenbide Sarea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Euskal trenbide-sareko geltokiak genero ikuspegiarekin diseinatzea

2022an euskal trenbide-sareko geltokiak genero-ikuspegiarekin diseinatzeko irizpideekin Liburu Zuria argitaratu ondoren, hurrengo urratsa liburu honetan identifikatutako geltokiak birmoldatzea da. Orain arte, 47 geltoki hobetu dira, larrialdietarako sakagailuak, aginte-zentrorako abisua, kamerak zuzenean emititzea eta abar dituzten totemak instalatuz. Ispiluak ere jarri dira, ikuspen gutxien duten puntuetan ikuspena hobetzeko.

**Kolaboratzailea:** Euskotren / Euskal Trenbide Sarea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Garraio publikoaren elkarreragintasunerako lan egitea

Euskadiko garraio-tituluen elkarreragintasunaren helburua lortzea, eta hori 2025. urtearen hasierarako guztiz lortzea espero da. Estatuarekin eta garraio publikoko gainerako operadoreekin lanean ari da %50eko hobaria aplikatu ahal izateko.

Hobari horrek garraio publikoaren erabiltzaileak %15 gehiago izatea eragin duenez, hurrengo azterlanetan aztertuko da garraio publikoaren eskaria handitzearen ondoriozko aldaketa modala nolakoa izan den.

Foru Aldundiekin / Udalekin **batera sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Biki Digitalaren garapena

Biki digitala funtsezko tresna da garraioaren eta mugikortasunaren sektorea eraldatzeko. Sistema fisikoen erreplika birtualak egiten dira, garraio publikoa optimizatzeko, trafikoa modu eraginkorrean kudeatzeko eta simulazio aurreratuak egiteko, azpiegituretan eta sistemetan egindako aldaketek denbora errealean izango duten eragina aurreikusteko.

Lehenik eta behin, iragarpenaren zati bat garatu da, epe laburrera, 15, 30, 45 eta 60 minutura, iragarpenak egiteko aukera ematen duena, errepide-sarean istripurik edo gorabeherarik izanez gero alternatibak denbora errealean planteatu ahal izateko. Bigarren urrats batean, eredu mesoskopikoa garatzen da. Eredu hori lagungarria eta euskarria da obrak egiteko, garraio-linea berriak ezartzeko edo zirkulazio-sistemari eragin diezaioketen gertaera handien kasuan zirkulazio-alternatibak planteatzeko.

Horrela, ereduak aukera ematen du egoera horietan jendea nola mugituko den aurreikusteko eta alternatiba onenak planteatzeko. Garrantzitsua da prozesua elikatzea, patroi, jarduera eta politiketan irteera hobea emateko. Gaur egun, Trafiko Zuzendaritzarekin akordio bat egiten saiatzen ari dira, eredua aberasteko eta sailetan erabili ahal izateko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Mugikortasun Jasangarriaren Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Trafiko Zuzendaritzaren jardunaldi profesionala "Kolektiborik kalteberenentzako Bide Segurtasunerako eredu berri bat Euskadin"

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Segurtasun Saila- Trafiko Zuzendaritza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Hezkuntza Saila

## Hezkuntza Sailak sustatutako ekintzak

**Legea edo araudia:**

### 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa

Curriculum dekretuak Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza arloan jasotzen du bide-segurtasuna eta mugikortasun jasangarria lantzea. 9. konpetentzia espezifikoan, ikasleei herritar konprometitu eta kritikoak izateko gaitasuna garatzea eskatzen zaie, gizarte-jokabideko arauen eta mugikortasun jasangarriaren garrantziaz jabetuz. Ikasleek oinezko eta lokomozio-bideen erabiltzaile gisa zirkulazio-arauak eta bide-seinaleak ezagutzen eta barneratzen ikasten dute, baita mugikortasun segurua eta jasangarria bermatzen ere.

Horrez gain, ebaluazio-adierazleek –bereziki 9.3 adierazleak– ikasleek mugikortasun-segurtasuneko arauak ulertu eta praktikatzea bultzatzen dute, baita mugikortasun jasangarri eta arduratsurako alternatibak proposatzeko gaitasuna ere. Honela, ikasleen artean bide-segurtasunari eta mugikortasun seguruari buruzko ohitura arduratsuak garatzen laguntzen da.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dekretuak aurreikusten du ikasleek sistema materialek indarren aurrean nola erreakzionatzen duten ulertzea, eta horrek eguneroko egoeretako bide-segurtasunarekin duen lotura. Honek, Itunaren esparruan, ikasleek bide-segurtasunari buruzko ezagutza zientifikoa garatzea eta egunerokoan aplikatzea ahalbidetzen du.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Gida, dosierra edo gomendioak:

### Ikasturte hasierako ebazpena

2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako hezkuntzako Estrategia garatzen jarraitzeko, ikastetxeak modu sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatuko ditu. Alde horretatik, ikastetxeak jasangarritasunerako konpromisoak zehaztuko ditu, Curriculum garapenari dagokionez, bai eta kudeaketa eta partaidetza komunitarioko praktikei dagokienez. Zehaztapen horiek ikastetxearen dokumentuetan jasoko dira (HP, AJA, UP…). Testuinguru horretan, hezkuntza-ingurune jasangarriagoa eraikitzen lagunduko duten ekintza praktiko ugari egin daitezke:

- Eskolako Agenda 2030a ezartzea: jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzea, bereziki ikasleengan, arazo ekologiko eta sozialetan esku hartzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoak garatuz, tokiko eta munduko eremuan, eta ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak egitea, bai banakakoak, bai kolektiboak.
- Larrialdi klimatikoari egokitzea ikasleekin lanketa kurrikularra eginez eta klimaren aldeko ekimenak aurrera eramanez.
- Ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea jasangarritasunarekin zerikusia duten komunitatearentzako zerbitzu-proiektuekin.
- Tokiko komunitatearekin lankidetzan eta ikuspegi ekosozialarekin, naturguneak, eskola-patioak eta beste hamaika espazio erabili curriculuma berrizteko.
- Eskolak dituen jasangarritasun konpromisotik abiatuta irizpide ekosozialak txertatzea dokumentu ofizial batean, kudeaketatik haratago.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Prest Gara kurtsoa. “Bide-arriskuen prebentzioa ikasgelan”

Bide-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza-ikastaroa ikasgelan. Helburu orokorrak dira:

- Mugikortasun segururako heziketaren eskumen-arloko eta zeharkako ikuspegia ulertzea.
- Arriskuaren eraginpean jartzeaz eta horrek baioekin, jarrerekin eta emozioekin duen loturaz gogoeta egitea.
- Mugikortasun segururako heziketak ikastetxeetako eguneroko jarduera didaktikoan izan dezakeen aplikagarritasuna baloratzea.

Helburu espezifikoak dira::

- Bideetako segurtasun eza mundo mailako eta lehentasunezko arazo gisa, non esku hartzeko beharra dagoen, identifikatzea.
- Mugikortasun segururako heziketa hainbat helburutarako beste heziketa batzuekin lotzea.
- Arrisku-jokabideen arrazoiak ezagutzea.
- Prebentzioa pertsonen – eta bereziki adingabeen eta gazteen- segurtasunerako ezinbesteko eta zeharkako estrategia gisa baloratzea.
- Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren baliabide didaktikoak erabiltzea.
- Haur eta gazteentzat istrupuen prebentziorako proposamen bat egitea, arriskuak gutxitzea eta nork bere egintzez eta emozioez jabetzea abiapuntutzat hartuta.

**Kolaboratzailea:** Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Mugikortasun segururako eta jasangarrirako teknikari kurtsoa

Goi-mailako zikloa, gidarien prestakuntzan diharduten enpresetako profesionalak prestatzeko, gidatzeko administrazio-baimenak lortzeko eta, oro har, bide-segurtasunerako prestakuntzarako; edo erakunde publiko eta pribatuetan bide-hezkuntzarekin, laneko bide-segurtasunarekin eta mugikortasun seguru eta jasangarriarekin lotutako eginkizunak betetzeko.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

### Laneko bide-segurtasunari buruzko online ikastaroak, Hezkuntza Sailaren menpeko profesionalentzat

Trafiko Zuzendaritzako Prestakuntza arlotik egin ziren, Hezkuntza Sailarekin lankidetzan, 2022. eta 2023. urteetan.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Segurtasun Saila.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Hezkuntza Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

**Azterketa, txostena edo analisia:**

### Agenda 2030 programa. Hiriko puntu ilunak ezabatzea

[Donostiako Udalak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | 5 | **6** | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Eskolako Agenda 2030 programa. Bizikleta tailerra

Urola Kostako eskoletan bizikleta-tailerrak egitea ikastolako lau mailatan, LH 4-5-6 eta DBH1 (azken horien kasuan, proiektu komunitarioaren eremuan sartuta). Gurpilak puzten, katea sartzen, pinoietan edo plateretan olioa ematen irakasten da, besteak beste. Hezkuntza Sailak jarduera hau finantzatzen lagundu du.

Urola Kostako eskolek **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Eskolako Agenda 2030 programa. Mugikortasun Jasangarriari buruzko Eskolako Agenda 2030 programaren jardunaldi teknikoa

2030eko Eskola Agenda programan parte hartzen duten Getxoko ikastetxeetako ikasleak Faduran bildu ziren mugikortasun jasangarriari buruzko jardunaldi batean. Hezkuntza Sailak jarduera honen finantzaketan lagundu du.

Getxoko Udalak **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Eskolako Agenda 2030 programa. Irrati-saioa.

[Gasteizko Udalak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Justizia eta Giza Eskubideen Saila

## Justizia eta Giza Eskubideen Sailak sustatutako ekintzak

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### TASEVAL (Bide-segurtasuneko tailerrak). Euskadiko espetxeetan bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonentzako espetxe-tratamenduaren programa

Bide-segurtasunaren aurkako delituak egin dituztenei zuzendutako ekintzak dira eta horien helburua da pertsona horiei beharrezko gaitasunak ematea arau-hauste hori egitera eraman dituzten inguruabarrak gainditu ahal izateko. Esku-hartzeko sozioedukatiboa da, bide-segurtasunaren aurkako delituengatik atxilotutako pertsonentzat.

Programaren xedea da bide-segurtasunarekin lotutako arriskuez kontzientziatzea, aukera eta eredu seguruak ematea eta norberaren jarreraz eta arriskuak hartzeaz hausnarraraztea. Zati bat taldekoa da eta maila pertsonalekoa.

Emanaldi horien artean "Bidea aldatzeko antzerkia" aipatu behar da, antzerkiaren eta gorputz-adierazpenaren bidezko proiektu terapeutikoa bide-segurtasunaren aurkako delituengatik zigortutako pertsonentzat, non hauek guztiak lantzen diren: gizarte trebetasunak (entzutea, enpatia, talde-lana, konpromisoa, adierazpen asertiboa, etab.), sormena eta askatasuna, gizartearen aldeko bizikidetza-arauaren urraketaz eta horren arriskuaz eta urraketaz jabetzea, gatazkak konpontzeko gaitasuna, beste estrategia batzuk, motibazioa eta norberaren aldaketa edo eraldaketa indartzea.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Segurtasun Saila.

**Kolaboratzailea:** AESLEME.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## PROSEVAL (Bide-segurtasuneko programa espetxean)

Espetxe-zigorra duten pertsonentzako tratamendu psiko-hezitzaileko esku-hartze programa, erregimen arruntean eta erregimen irekian, bide-segurtasunaren aurkako delituei aurre egiteko. Tratamendu eta terapia programa nortasunaz, emozioez eta portaeraz jabetzera bideratuta dago, baita bide-jarrerara eta gizartearen aldeko bizikidetzara ere. Balioak, gaitasun emozionalak, jarrerak, erantzun-ereduak, bulkaden kontrola, arrisku-faktoreen murrizketa eta abar lantzen ditu.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## GIDABAIMENA programa

Espetxean dauden pertsonentzako A eta B gidabaimena lortzeko prestakuntza eta trebakuntza proiektua, gizarteratzeko eta laneratzeko tresna gisa. Bigarren mailako prebentzio proiektu bat da, gidatzearekin eta bide-segurtasunarekin lotutako arau-hauste penalak egiteko arrisku handia duen kolektibo bat gaitu nahi duena. Proiektuak materialak eta prestakuntza-laguntzak, administrazio-kudeaketan laguntzea, hezkuntza-jarraipena eta finantzaketa eskaintzen ditu.

**Kolaboratzaileak:** Trafikoko Zuzendaritza Nagusia / Euskadiko Autoeskolen Federazioa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### BERRESKURATU programa

Bide-segurtasunaren aurkako delituengatik edo puntu guztiak galtzeagatik gidabaimena kendu zaien pertsonentzako prestakuntza eta hezkuntza proiektua. Hirugarren mailako prebentzioko programa bat da, nork bere burua biraktibatzekoa eta normalizazio juridiko eta sozialekoa, gizarteratzeko eta laneratzeko prozesua errazten duena. Proiektuak materialak eta prestakuntza-laguntzak, administrazio-kudeaketan laguntzea, hezkuntza-jarraipena eta finantzaketa eskaintzen ditu.

**Kolaboratzaileak:** Trafikoko Zuzendaritza Nagusia / Euskadiko Autoeskolen Federazioa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Justizia eta Giza Eskubideen Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Gida, dosierra edo gomendioak:

### Bideko Ezbeharren Biktimei Berehalako Arreta emateko Praktika Onen Gida

Informazio-gida, bide-ezbeharren biktimei eta haien senideei laguntzeko eta aholkuak emateko, Euskadin zer baliabide dauden eta une zail horietan zer urrats egin behar diren jakin dezaten.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak **sustatua.**

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### “Don't be Dummy! Zuk ez duzu ordezkorik” / “Don't be Dummy! Para ti no hay repuesto(s)” proiektua

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Segurtasun Saila - Trafiko Zuzendaritza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila

## Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak sustatutako ekintzak

### Plana edo estrategia:

#### Adinekoekiko Euskal Estrategia berria 2021-2024

Euskadin datozen urteetarako plangintza gerontologikoa Adinekoekiko Euskal Estrategian (2021-2024) oinarritzen da. Euskadiko biztanleriaren bizitza-urteak luzatzen doaz eta horren ondorioz, hauek guztiak birplanteatu behar dira: zahartzaroaren eta erretiroaren definizioa, osasun- eta gaixotasun-patroiak, adineko pertsonen profil aniztasuna edo iraupen luzeko zaintza-sistemak eskaera berrietara egokitzeko beharra (adin oso handiko pertsonak, LGTB kolektiboaren ikusgarritasuna, modu autonomoan bizitzeko joera handitzea adinekoen artean, bizitegi-aukera berrien gorakada – etxebizitza partekatuen ereduak, eta abar), besteak beste. Dokumentuak zahartze aktiboa sustatu nahi du, bizitza osoa lortzeko. Mugikortasunaren eremuan, Herritartasun Aktiboa 1. ardatzean, bizi-zikloan komunitate eta ingurune lagunkoiak, ingurune inklusiboak eta irisgarriak sustatzeko konpromisoaren alde lan egiten da, eta horrek hirien eta haien garraio-sareen plangintzan eragiten du.

**Kolaboratzailea:** Euskofederpen.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Azterketa, txostena edo analisia:

#### Trafiko-istripuetako hilkortasunarekin lotutako adierazleen kudeaketa Gazteen Euskal Behatokiaren barruan

Gazteen Euskal Behatokiaren esparruan, bide-segurtasunarekin lotura zuzena duten hainbat adierazleren bilakaera kudeatzen da: " Trafiko-istripuen ondorioz zendutako gazteen kopurua" eta "Trafiko-istripuen ondorioz zendutako 15-29 urteko biztanleen zenbatekoa, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (100.000 biztanleko tasa)". Datuak Osasun Sailetik eskuratzen dituzte, eta "Euskadiko Gazteen Panorama" izeneko dokumentuan sartzen dira, Osasunaren atalean.

**Kolaboratzailea:** Eusko Jaurlaritza: Osasun Saila.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

### Plana edo estrategia:

### V. Gazte Plana

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Lehendakaritza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Ekonomia, Lana eta Enplegu Saila

## Ekonomia, Lana eta Enplegu Sailak sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Bide-segurtasuneko planak enpresen laneko segurtasuneko planetan integratzea

*In itinere* edo *in mission* istripuen azterketa eta jarduera-protokoloak segurtasun-planen barruan sartu nahi dira, informazio hori guztia homogeneizatzeko eta irizpideak bateratzeko helburu nagusiarekin.

**Kolaboratzaileak:** Enpresak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### *In itinere* istripu guztien analisia eta azterketa

*In itinere* istripu guztiak aztertzea eta ikertzea, zer faktore gertatu diren identifikatzeko eta jakiteko, eta ahal denean neurri zuzentzaileak ezartzen saiatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

### Lanaldiko trafiko-istripu guztien analisia eta azterketa

Garraiolariek eta langile autonomoek lanaldian gidatzean izandako zirkulazio-istripuak aztertzea eta ikertzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Kanpainak egitea enpresetan eta bide-segurtasuneko arazoak dituzten espazioetan

Istripuen prebentzioa sustatzea kontzientziazio eta hezkuntza estrategien bidez. Kanpaina horien barruan daude enplegatuentzako zein enpresentzako jokabide arduratsuak sustatzen dituzten gaikuntza eta ekimenak. Helburua arriskuak murriztea eta langileentzako ingurune seguruagoak sortzea da.

**Kolaboratzaileak:** Enpresak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | **13** | **14** | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Osasun Saila

## Osasun Sailak sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Euskadiko Osasun Plana 2030

Eusko Jaurlaritzak datozen urteetan garatuko dituen osasun-politikak definitzen dituen ibilbide-orria da, Euskadi osasuntsuago bat gidatzeko, herritarren osasuna bermatuz eta inor atzean utzi gabe. Xede hori lortzeko zehazten dituen helburuen artean, lau nagusi nabarmentzen dira:

- Haurren eta nerabeen osasunaren garapena sustatzea.
- Zahartze aktiboa eta bizitza betea sustatzea.
- EAEko biztanleen artean saihestu daitekeen morbimortalitatea murriztea.
- Osasun-arloko desparekotasunak murriztea.

Helburua da ingurune eta komunitate osasungarriak, jasangarriak eta erresilienteak sortzea eta garatzea, eta klima-aldaketari erantzutea. Mugikortasun jasangarria sustatzearekin, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda hedatu eta ezartzearekin, Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguruko eta Jasangarriko 2021-2025 Plan Estrategikoarekin, Bide Segurtasunaren aldeko Euskal Itunarekin eta Euskadiko Irisgarritasun Unibertsaleko Estrategiarekin lotzen da.

Hona hemen ekintza batzuk:

- Jarduketa plana (2024-2026): jarduera-ildo nagusien deskribapena, batzuk aurretik hasita eta beste batzuk planifikatuta, Eusko Jaurlaritzako sailek, Osakidetzak, Foru Aldundiek eta udalek sustatutako sektore anitzeko ekintzetan oinarrituta.
- Aginte-taula (2024): Aginte-taulako adierazleek Osasun Planaren helburuen alderdi garrantzitsuei buruzko balioak ematen dituzte, eta gaikako ebaluazioen osagarri gisa proiektatzen dira. Gainera, kudeaketa-tresna bat ere bada, Euskadi 2030 Osasun Planaren hedapenean erabakiak hartzea errazten duena.

**Kolaboratzaileak:** Osakidetza / Eusko Jaurlaritza: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila / Foru Aldundiak / Udalak / Hirugarren sektoreko elkarteak / Unibertsitatea eta erakunde akademikoak / Enpresak / Herritarren erakundeak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Euskadiko Adikzioen VIII. Plana 2023-2027

Euskadin adikzioen arloan garatzen diren estrategiak eta esku-hartzeak planifikatu, antolatu eta koordinatzeko tresna da, eta euskal biztanleriaren ongizate-maila handitzera bideratutako politika batzuk biltzen ditu, horiei helduz. Duela lau hamarkada hasitako plangintza-lana eguneratu nahi da, eta hura egiteko, ikerketa zientifikoaren aurrerapenak hartu dira oinarri, adikzioen azpian dauden faktore-sorta zabala ulertzen laguntzeko.

Planaren aurkezpena koordinazioko eta partaidetzako kide anitzeko organoei egin zaie. Gainera, planaren edukiari buruzko komunikazio-jardunaldiak egin zaizkie lurralde historiko bakoitzeko eragile garrantzitsuei (adikzioen prebentzio komunitarioko udal-talde teknikoak, adikzioen eremuko hirugarren sektoreko erakundeak eta osasuna sustatzeko teknikariak, erizaintza komunitarioa, etab.).

**Kolaboratzaileak:** Osakidetza / Foru Aldundiak / Tokiko erakundeak / EHU / Deustuko Unibertsitatea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Substantzia psikoaktiboak kontsumitzen dituzten gidarien berrerortzea prebenitzeko plana

Osasun Publikoko Batzordearen lantaldean parte hartzea, gidariek trafikoko arau-hausteen berrerortzeak prebenitzeko plan bat egiteko, bereziki alkoholaren eta beste substantzia psikoaktibo batzuen kontsumoagatik bidalitakoak.

Autonomia-erkidegoetako Osasun Sailek egiten duten lana identifikatzeko eta bateratzeko, inkesta bat egin zen, gidarien gaitasun psikofisikoak nola ebaluatzen diren jakiteko. Era berean, osasun-kontseilaritzen eta probintziako trafiko-buruen arteko harremana deskribatu nahi zuen, baita erakunde bakoitzari esleitutako eskumenak ere. Gaur egun, Osasun Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusian aztertzen dira emaitzak.

**Kolaboratzaileak:** Espainiako Gobernua: Osasun Ministerioa / Osakidetza / Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Kanpaina edo komunikazioa:

## Kanpaina mediatikoa, errekuntza baxuko tabakoaren eta vaper-en erabilerak osasunean dituen ondorioei buruz sentsibilizatzeko

Komunikabide tradizionaletan (prentsa, telebista eta irratia) eta Sare Sozialetan egindako kanpaina, kerik gabeko munduko astean (maiatzaren 31n) abiarazia. "Bapeatzea ez da broma. Bizitza izorratzen dizu" ekimenak substantzia toxikoen inguruan kontzientziatzeko deia egin zuen eta erretzeari uzteko alternatiba ote diren ebidentzia zientifikorik ez izateari.

**Kolaboratzaileak:** Osakidetza / Tokiko erakundeak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Gobernuko kanpainetan parte hartzea

Osasun Sailaren kanpaina, kalamuaren edo alkoholaren eraginpean gidatzeak dituen arriskuei buruzkoa.

**Kolaboratzailea:** Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Osasun Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Trafiko-istripuetako hilkortasunarekin lotutako adierazleen kudeaketa Gazteen Euskal Behatokiaren barruan

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Gida, dosierra edo gomendioak:

### Eskola-ingurune osasungarriak eta jasangarriak sustatzeko eskuliburua

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasun Saila].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Jarduera fisikoaren orientazio-zerbitzuak

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Trafiko Zuzendaritzaren jardunaldi profesionala "Kolektiborik kalteberenentzako Bide Segurtasunerako eredu berri bat Euskadin"

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Segurtasun Saila- Trafiko Zuzendaritza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Eusko Jaurlaritza: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

## Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako ekintzak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

## Legea edo araudia:

### 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoarena eta kirolarena

Legearen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kalitatezko kirolaren araubide juridikoa eta sustapena arautzea, bizitza aktiboaren kultura eraikitzeko eta kultura hori garatzeko behar diren baliabideak bermatzeko. Barne hartzen ditu oinez, bizikletaz edo bestelako ibilgailuetan egiten diren desplazamendu aktiboak sustatzeko neurriak, ikastetxeetarako joan-etorri aktiboak, garraioari, errepideei eta bide-segurtasunari buruzko neurriak, eta oinez, bizikletaz edo beste bitarteko aktibo batzuetan egiten diren desplazamendu aktiboak sustatzen dituzten hirigintza-neurriak. Legea beste eskumen-titulu batzuen babesean artikulatzen da, hala nola hirigintza, garraioa, hezkuntza, kultura, gizarte-zerbitzuak, lanbideak edo osasuna.

**Kolaboratzailea:** Euskadiko Txirrindularitza Federazioa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Plana edo estrategia:

### Mugiment Ekintza Plana

Pertsona orok bere egunerokoan ingurune seguruak, egokiak eta aktibo izateko aukera desberdinak izango dituela bermatzeko plana. Horrela, norbanakoaren eta komunitatearen osasuna hobetuko da eta gizarte, kultura eta ekonomiaren garapena sustatuko da.

**Kolaboratzaileak:** Euskadiko jarduera fisikoaren sustatzaileak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Programa edo neurria:

### Ibiltarien sareak

Oinez, gidatuta edo auto antolatuta, ibilaldiak egiten dituzten taldeak, osasun fisikoa, mentala eta soziala sustatzeko helburuarekin. Komunitatearen eta auzoko edo udalerriko eragileen parte-hartzearekin antolatzen da.

**Kolaboratzaileak:** Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Jarduera fisikoaren orientazio-zerbitzuak

Pertsona ez-aktiboentzako orientazio zerbitzuak. Jarduera fisikoa egiteko behar den aholkularitza, orientazioa eta laguntza jaso dezakete pertsona horiek, betiere jarduera fisikoan aditua den pertsona baten eskutik, erregulartasunez egiteko ohitura hartu arte.

**Kolaboratzaileak:** Eusko Jaurlaritza: Osasun Saila / Foru Aldundiak / Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza

## Plana edo estrategia:

### Euskadiko Osasun Plana 2030

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Osasun Saila].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## 2. Arabako Foru Aldundia

araba álava foru aldundia diputación foral

### GARATUTAKO EKINTZAK

**Arabako Foru Aldundiak sustatutako ekintzak: 24**

**Arabako Foru Aldundiak parte hartzen duen beste eragile batzuek sustatutako ekintzak: 1**




### HARTUTAKO KONPROMISOAK

Eragile sinatzaileak gauzatutako ekintzek Ituneko konpromiso hauek garatu dituzte:

- ✓ 1. Konpromisoa: Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda ezartzea.
- ✓ 2. Konpromisoa: Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea.
- ✓ 3. Konpromisoa: Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea.
- ✓ 4. Konpromisoa: Faktoreen arteko interdependentziari heltzea.
- ✓ 5. Konpromisoa: Mugikortasun aktiboa sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea.
- ✓ 6. Konpromisoa: Hiri-eredu berrien alde egitea.
- ✓ 7. Konpromisoa: Ezbehar-tasa handiko eremuak eta hobekuntza potentzial handiko eremuak ezabatzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea.
- ✓ 8. Konpromisoa: Kudeaketa integralaren alde egitea.
- ✓ 9. Konpromisoa: Bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde lan egitea.
- ✓ 10. Konpromisoa: Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea.
- ✓ 11. Konpromisoa: Kolektibo kalteberen babes berezian arreta jarriko duten politikak bultzatzea.
- ✓ 12. Konpromisoa: Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea.
- ✓ 14. Konpromisoa: Laneko Bide-Segurtasuna Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketaren barruan sartzea.

## Arabako Foru Aldundiak sustatutako ekintzak

### Plana edo estrategia:

## Lankidetza-hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra – Arabako Foru aldundia, trafikoari eta errepideei buruzkoa

Errepideko garraioa ikuskatzeko planak koordinatu eta garatzen laguntzea, herri arteko bideetan zirkulatzen duten bidaiariak eta salgaiak garraiatzeko ibilgailuak zaindu eta kontrolatzeko eginkizunekin. Urte bakoitzaren amaieran, Arabako Lurralde Historikoko Ikuskapen Plana ATLUri eta Miñoien Zerbitzuari bidaltzen zaie, datorren ekitaldirako. Bertan, baterako jarduketa batzuk finkatzen dira. Halaber, errepideen eremuan eta hitzarmen horren barruan, bide-sarearen funtzionamenduari buruzko informazioa eta datuak trukatzea errazten da, bide-segurtasuna hobetzeko asmoz.

**Kolaboratzaileak:** Arabako Trafiko Lurralde Unitatea ATLU) / Miñoien Zerbitzua.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Arabako Mugikortasun Jasangarriaren II. Plana 2025-2034

Datozen urteetan foru-garraioaren sistema egokitu eta hobetzeko, eta Arabako biztanleen mugikortasun beharrei eta eskaerei eraginkortasunez eta efizientziaz erantzuteko bide-orria. Dokumentu estrategiko honek Foru Aldundiaren berezko eskumenak ditu ardatz, hau da, errepideko bidaiarien hiriarteko garraio publiko erregularra, baina haratago doa, eta Arabako hamar urterako mugikortasunaren azterketa eta planteamendu orokorra egiten du.

**Kolaboratzaileak:** Beste administrazio publiko batzuk / Eragile ekonomikoak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Arabako Bizikletaren Estrategia

Erakundeen eta gizarte-eragileen gida, Arabako lurralde historikoan lantokietara eta ikasketa-zentroetara joateko bizikletaren erabilera sustatzeko, eta baliabide turistiko gisa erabiltzeko.

**Kolaboratzaileak:** Beste administrazio publiko batzuk / Eragile ekonomikoak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Arabako Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala

Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala garatzea. 2024ko udazkenean Gasteiz eta Arabako Parke Teknologikoa lotuko dituen bizikleta bide berriaren obrak lizitatzea aurreikusten da. 2025ean Guardia eta Eltziego herriak lotuko dituen bizikleta bidea eraikitzeko proiektua garatuko da.

**Kolaboratzaileak:** Tokiko erakundeak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Arabako Lurralde Historikoko Ikuskaritza Plana

Arabako Lurralde Historikoko Ikuskaritza Plana garatzea eta gauzatzea. Funtsezko tresna da, lurraldeko garraioaren antolamenduan eragin handiena eta eragozpen handiena eragiten duten arau-hausteak zaindu eta kontrolatzeko. 2023an 1.779 zehapen-espediente hasi ziren, arau-hauste motaren arabera sailkatuta.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Arabako Errepideen Plan Integrala (PICA)

Honen helburu nagusia da Arabako Foru Errepide Sarean arriskutsuak izan daitezkeen tarteak pixkanaka hobetzea. Horretarako, PICAk definituta ditu zer errepidetan jardun behar den, zer esku-hartze mota egin behar den eta aldizkakotasun bat ezartzen du, jarduketa bakoitzak duen premiaren arabera.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Programa edo neurria:

## Arabako Foru Errepide Sare osoa kontserbatzeko kontratuak

Foru Errepide Sareko ohiko kontserbazio lanak egitea, bai eta inbertsioaren arloko hainbat jarduketa ere. Kontratu horiek alde batera utzita, urtero bide-zoruak hobetzeko eta erreformatzeko kanpaina egiten da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Errepide Zerbitzuko Ustiapen eta Bide Segurtasuneko Atalaren kontratuak

Urtero lizitatzen da prebentzio-neurrien eta neurri aringarrien kontratua. Kostu txikiko jarduerak egin nahi dira, batez ere hiriko eremuetan eta zeharbideetan, istripuak pilatzen diren zatietan eta bide-sareko hainbat puntutan. Jarduera gehienak seinaletika horizontala zein bertikala hobetzean eta indartzean, euste-sistemen tarte berriak jartzean eta trafikoa lasaitzeko neurriak hartzean datza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Dirulaguntzak edo finantzaketa:

### Deskontu sistema progresibo baten inplementazioa BAT txartel pertsonalizatuaren bidez, Alavabus eta Eskualdeko Garraioaren zerbitzuan

Deskontu progresiboko sistema berria ezartzea Alavabusen eta Eskualdeko Garraio-Zerbitzuan, BAT txartel pertsonalizatuaren bidez, txartel arruntaren prezioaren %72ra iristen diren hobariekin. Horren helburua da ohiko bidaiariari lehentasuna ematea, erabiltzaile berriak erakartzea eta foru garraio publikoa sustatze. Gainera, BAT txartel anonimoa dutenek ohiko txartelaren prezioaren %50eko deskontua izaten jarraitzen dute otsailaren 1etik aurrera hamabi hilabetez.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### Arabako hiriarteko eta Eskualdeko Garraioko linea erregularren jarraipena eta kudeaketa

Etengabeko hobekuntza estrategia aplikatzea, maiztasunak, ordutegiak eta geltokiak bidaiarien eskarietara egokituz, eta txartelaren prezioan %50eko aparteko deskontuarekin jarraitzea, BAT txartela erabiltzen bada, 2022tik aurrera ezarri zena.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Kolektibo kalteberenen babes berezian oinarritutako politikak

Doako zerbitzuak Alavabusen eta Eskualdeko Garraio-Zerbitzuan ikusmen desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten eta joan-etorrietarako laguntza pertsonala behar duten bidaiarien laguntzaileentzat, bai eta urritasun psikikoa, sentsoriala edo intelektuala duten eta laguntza pertsonal bera behar duten bidaiarien laguntzaileentzat ere. Era berean, emakume eta adingabeei zuzendutako geltokiak daude Alavabusen, geltoki erregular gisa berariaz aurreikusitakoez bestelako lekuetan, betiere baldintza jakin batzuk betetzen badira (18:30etik aurrera azaroaren 1etik martxoaren 31ra arte eta 21:00etatik aurrera apirilaren 1etik urriaren 31ra arte).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Garraio txartelen elkarreragintasuna Euskadin

BAT txartelaren erabateko elkarreragintasuna lortzea Bizkaian diharduten garraiobide guztietan. 2024an zehar, BAT txartelaren elkarreragintasuna ezartzea espero da Gipuzkoako hiriarteko garraioan, Lurraldebusen. Horrela, BAT txartelaren elkarreragintasuna lortuko litzateke Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek kudeatzen dituzten garraiobide publiko guztietan.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Mugikortasun Jasangarriaren Saila / Foru Aldundiak / Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Arabako Mugikortasun Agintaritza eratzea

Arabako Mugikortasun Agintaritzako (AMA) kideen arteko lankidetza aktiboa, etorkizuneko Arabako Mugikortasun Agintaritzaren Partzuergoa sortzeko eta Araban diharduten garraio publiko mota guztien tarifen integrazioa ezartzeko behar diren urratsak ematen jarraitzeko.

**Kolaboratzaileak:** Eusko Jaurlaritza: Mugikortasun Jasangarriaren Saila / Gasteizko Udala.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Arabako Foru Aldundiaren Errepideak Kontrolatzeko Zentroa

Bideen egoeraren eta horietan erregistratzen diren gorabeheren eguneroko jarraipena egitea. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Trafikoak sinatutako hitzarmenaren bidez utzitako denbora errealeko irudiak daude, bai eta sarean zehar instalatutako hainbat gailu ere, datuak hartzeko eta ondoren ustiatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Foru garraioaren web atari berria eta App-a berritzea

Web ataria eta App-a berrituz, webgunerako sarbidea erraztea da helburua, gogorarazteko domeinu zuzenago eta errazago batekin, foru garraioaren marka eta irudia indartzea, foru garraioari buruzko informazioaren erabilera eta sarbidea erraztea. Gainera, bidaia-planifikatzaile berri bat ere badago, Alavabus eta Eskualdeko Garraioa barne hartzen dituena.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Alavabusen eta Eskualdeko Garraio Zerbitzuaren erabiltzaileei arreta integrala emateko zerbitzua

Bidaiariekin komunikatzeko kanal zuzena, herritarrei foru garraioaren ordutegiei, ibilbideei, geltokiei, tarifei eta ordaintzeko moduei buruzko informazio praktiko guztia modu arin eta eraginkorrean emateko, zalantzak argitzeko eta kudeaketa jakin batzuk egiten laguntzeko. Baita foru garraioa hobetzeko proposamenak eta iradokizunak jasotzeko ere.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Moveuskadi aplikazioan parte hartzea

Euskadiko garraiobide publiko guztien integrazioa. Foru-garraioari buruzko datuak eta informazioa Euskadin diharduten garraiobide publikoen "Moveuskadi" plataforma digital komunean sartzea, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Garraioen arloko prestakuntza

Errepide bidezko garraioari buruzko prestakuntza ematea ATLUko eta Miñoien Zerbitzuko langileei.

**Kolaboratzaileak:** Arabako Trafiko Lurralde Unitatea (ATLU) / Miñoien Zerbitzua.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Miñoien kidegoarentzako prestakuntza Neguko Bidezaintza Planari buruz

Miñoien sekzioari ALHren Neguko Bidezaintza Planari buruzko prestakuntza emateko proposamena, elurra aktibatzen denean errepidean egiten duten lanari begira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Arabako Foru Aldundiko Garraio Ikuskaritzako Zerbitzuaren, ATLUren eta Miñoien Zerbitzuaren arteko aldizkako bilerak

Aldizkako bilerak, egin beharreko ekintzak bateratzeko, errepideko garraioei buruzko araudia eguneratzeko, etab.

**Kolaboratzaileak:** Arabako Trafiko Lurralde Unitatea (ATLU) / Miñoien Zerbitzua.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Aldizkako bilerak Arabako Trafikoko Lurralde Unitatearekin

Hiru hilean behingo bilerak, Arabako errepideetan gertatutako istripuei buruzko informazioa trukatzeko, bai eta istripu horiek eragin dituzten arrazoiei buruzkoa ere, bide-segurtasunaren arloan egin daitezkeen hobekuntza-jarduerak aztertzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Arabako Mugikortasun Jasangarriko II. Planaren prozesu parte-hartzaileak

Partaidetza-prozesuak herritarrekin eta Arabako kuadrilletako eta toki-erakundeetako ordezkariekin.

Ebaluazio fasean, Mugikortasunaren Diagnosi eta Analisi Plana egin zen, partaidetza-prozesuak egin ziren herritarrekin eta Arabako kuadrilletako eta toki-erakundeetako ordezkariekin.

Gainera, plana egiteko fase guztiak amaitu ondoren, bi hilabeteko epea ireki zen, interesdunek planaren hasierako testuari ekarpenak aurkezteko aukera izan zezaten.

**Kolaboratzaileak:** Beste administrazio publiko batzuk / Eragile ekonomikoak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bizikletaren munduko eguna

Bizikletaren Munduko Eguna ekainaren 3an ospatzen da. 2024an, ikasleei zuzendutako sentsibilizazio eta hezkuntza kanpaina bat egin zen, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ematen duten Arabako ikastetxe guztiei lehen mailako ikasleentzako liburuxka bat bidaliz, bizikletaz zirkulatzeko arauei eta horiek ingurumenerako eta osasunerako dituzten onurei buruzko funtsezko informazioarekin.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Mugikortasunaren Europako Astea

Mugikortasunaren Europako Astea herritarrei zuzendutako kontzientziazio-kanpaina bat da, mugikortasun jasangarria eta garraio publikoa sustatzeko. Arabako Foru Aldundiak hainbat ekimen burutu zituen:

- Promozio-kanpaina, 2023ko irailean burututa, Mugikortasunaren Europako Astearen hasieran. Alavabuseko autobusen web, sare sozial eta pantailetan bideo bat banatu zen, bizikletaren erabilera eguneroko garraiobide gisa sustatzeko.
- "Autorik gabeko Europako Eguna" (irailak 22) dela eta, herritarrei dei egiten zaie garraiobide hori egun batez uzteko eta garraiobide jasangarriagoak eta ingurumena errespetatzen dutenak probatzeko. Horrela, 2024an, Arabako eskualdeko garraio-zerbitzu publikoen eta hiriarteko linea erregularren erabiltzaileentzako doakotasuna sustatu zen, herritarrak ibilgailu partikularraren erabilera saihestera eta mugikortasun modu iraunkorragoen erabileran sentsibilizatzera animatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Arabako Foru Aldundiaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

### Kanpaina edo komunikazioa:

#### Kontzientziazio bideoak garraio publikoan

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# 3. Bizkaiko Foru Aldundia

## GARATUTAKO EKINTZAK

**Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako ekintzak: 35**

**Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartzen duen beste eragile batzuek sustatutako ekintzak: 2**




## HARTUTAKO KONPROMISOAK

Eragile sinatzaileak gauzatutako ekintzek Ituneko konpromiso hauek garatu dituzte:

- ✓ 2. Konpromisoa: Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea.
- ✓ 3. Konpromisoa: Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea.
- ✓ 4. Konpromisoa: Faktoreen arteko interdependentziari heltzea.
- ✓ 5. Konpromisoa: Mugikortasun aktiboa sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea.
- ✓ 6. Konpromisoa: Hiri-eredu berrien alde egitea.
- ✓ 7. Konpromisoa: Ezbehar-tasa handiko eremuak eta hobekuntza potentzial handiko eremuak ezabatzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea.
- ✓ 8. Konpromisoa: Kudeaketa integralaren alde egitea.
- ✓ 9. Konpromisoa: Bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde lan egitea.
- ✓ 10. Konpromisoa: Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea.
- ✓ 11. Konpromisoa: Kolektibo kalteberen babes berezian arreta jarriko duten politikak bultzatzea.
- ✓ 12. Konpromisoa: Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea.
- ✓ 13. Konpromisoa: Bide-erabiltzaileei arriskuei eta lege-ondorioei buruzko informazioa ematea eta errehabilitazioaren aldeko apustua egitea.

# Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako ekintzak

## Legea edo araudia:

### 80/2014 Foru Dekretua

Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideetako bide-segurtasunaren kudeaketari buruzko Foru Dekretua. Indarrean dagoen dekretu honek Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituen errepideetako bide-segurtasuneko prozedurak arautzen ditu. Gaur egun, Foru Dekretu hau aldatzeko prozesuan dago, Europako 2019/1936/EE Zuzentarauarekin lerrokatzeko. Zuzentarau horrek gai horri buruzko Europako xedapenak eguneratzen ditu. Araudia eguneratzearen helburua da Bizkaiko errepideetako bide-segurtasuna kudeatzeko prozedurak homogeneizatzea, 2019ko Europako Zuzentarauaren eskakizunetara egokitutako prozesu berriak sartzeko, eta, horrela, bide-segurtasunaren tratamendu uniformea bermatzeko lurralde osoan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Plana edo estrategia:

### Bizkaiko Errepideen Arlokako Lurralde Egitamua (ALE)

Plan honek datozen urteetarako Bizkaiko Foru Aldundiaren errepideen arloko jarduketa nagusiak definitzen ditu. ALEren barruan bide-segurtasunaren gaineko eragina ebaluatzeko prozedura bat sartu da plangintzaren atariko faseetatik. Planak bide-segurtasuna integratu nahi du plangintza-fasetik, proiektuak xehetasunez sortu aurretik. Estrategia prebentibo eta proaktibo horren helburuak hauek dira:

- Bide-segurtasunaren helburuak aurreratzea eta dagoen sarearekiko loturaren ondoriozko disfuntzioak saihestea.
- Bide-segurtasunaren alderdiak lehen faseetatik aintzat hartzen direla ziurtatzea, fase aurreratuetako esku-hartze garestiak eta mugatuak behar ez izateko.
- Jarduketak Zero Ikuspegiaren printzipioekin koherentziaz planifikatzea, lurraldearen estrategiak ezbehar-tasa larria murrizteko helburuekin lerrokatuz.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-segurtasuneko lau urteko planak

Plan horiek lehenetsi eta programatu egiten dituzte aldez aurreko analisietatik eratorritako jarduerak, hala nola istripuen kontzentrazio-eremuen azterketa eta zeharbideen azterketa, besteak beste, fokua erabiltzaile kalteberetan jarriz. Ikuspegi horrek aukera ematen du jarduerak denbora-tarte jakin baten barruan planifikatzeko eta horien aurrekontua egiteko, eta ezarritako ekintzak biktima larrien murrizketa maximizatzera bideratuta daudela ziurtatzen du, Zero Ikuspegiaren konpromisoekin eta 2030erako helburuekin bat etorriz.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bizkaiko Bide-Azpiegituren Berrikuntza eta Jasangarritasunerako 2024-2027 Plana

Planaren helburua Bizkaia mugikortasun jasangarriaren, konektatuaren, automatizatuaren eta kooperatiboaren hedapenean erreferente bihurtzea da. Foru erakundeak plan horren barruan berrikuntzarekin eta jasangarritasunarekin lotutako 300 proiektu bultzatzea aurreikusten du, 55,48 milioi euroko inbertsioarekin. Proiektu horiek bide-segurtasuna eta lurralde-garapen orekatua areagotzen lagunduko dute, eraginkortasunari eta efizientziari lagunduko dioten irtenbide berritzaileen bidez. Planak garrantzi handia ematen dio lankidetza publiko-pribatuari, eta hiru ardatz estrategikoren inguruan egituratzen da:

- Erabiltzaileari zuzendutako kudeaketa: erabiltzailearen inklusioa eta mugikortasun esperientzia bermatzea, segurtasuna, egungo azpiegiturak eta eskariaren kudeaketa hobetuz, erabilera-ohitura berrien arabera.
- Jasangarritasuna: bide-azpiegiturek ematen duten zerbitzuaren maila, iraunkortasuna eta erresilientzia hobetzea, ekonomia zirkularraren esparruan berrikuntzak hartuz eta aplikatuz.
- Berrikuntza teknologikoa: teknologia berritzaileak inplementatzea, hala nola adimen artifiziala, biki digitalak eta big data, garraio irtenbide seguruagoak, fidagarriagoak, eraginkorragoak eta jasangarriagoak bultzatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Bizkaiko Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala 2023-2035

Plangintza sektorialerako tresna, gainerako administrazioekin koordinatuta, Bizkaiko Bizikleta Bideen Oinarrizko Sare Funtzional osoan sartu beharreko xedapenak, helburuak, lehentasunak eta hobekuntzak ezartzen dituena. Bizikleta azpiegiturak eta bizikleta garraiobide gisa sustatzea ezinbesteko paradigma aldaketaren parte dira garraio eta lurralde antolamenduko politiketan.

Planak Bizkaia egituratzen duen bizikleta-bideen xede den sarea zehazten du, bizikletaz eguneroko mugikortasun alternatiboa sustatzeko eta ingurune naturalera hurbiltzeko helburuarekin.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Agregakinak errepideen zoladurak sendotzeko berrerabiltzeko plana

Horren barruan ekonomia zirkularra eta berrikuntza sartzen dira. Hain zuzen ere, bost errepide-tartetan nahaste epelez sendotuko da zoladura. Nahaste horretan fresaketaren ondoren birziklatutako materialaren % 80 berrerabil daiteke. Bost errepide-zatitan aurreikusten dira lanak, 24,3 kilometro guztira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Programa edo neurria:

### Jarduketa programak bide-sarean eta kolektibo kalteberen gainean

Ezbehar-tasa aztertuta, eta, bereziki, istripu ugariko bide-tarteak eta ikuskapenak aztertuta, bideragarriak diren eta aurrekontuan sar daitezkeen jarduerak aztertzen eta programatzen dira:

- Zeharbideen programak, sareko bide-tarteak bide-segurtasunari buruzko Dekretura egokitzeko.
- Erabiltzaile kalteberen programak.
- Sarean jarduteko programak, motorren istripu-tasa murrizteko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bizkaia Connected Corridor

Benetako agertoki batean mugikortasun kooperatibo, konektatu eta autonomoarekin eta azpiegitura adimendun eta digitalekin lotutako teknologia mota guztiak probatu, balioztatu eta erakusteko ekimen publiko-pribatua da (Tecnaliarekin elkarlanean). Bizkaia Connected Corridor-ek euskal industria eta ikerketa-ehunen esku jarri ditu Bizkaiko errepideetako 1.200 km-ak, horiekin lotutako azpiegitura guztiekin: tunelak, zubibideak, ezpondak, zerbitzu-bideak, kontrol-zentroak, etab. CCAM teknologien eta azpiegitura adimendun eta digitalen proba-laborategi gisa erabiltzeko, bai teknologia fisikoak, materialekin, erresilientziarekin, iraunkortasunarekin eta abarrekin lotutakoak, bai ekimen digitalak, adimen artifizialarekin, zibersegurtasunarekin, komunikazio aurreratuekin, software-teknologiekin eta abarrekin lotutakoak.

Bizkaiko Foru Aldundiak korridore kooperatibo hau garatzen eta bultzatzen jarraituko du, bertan berrikuntza proiektu berriak garatzeko eta probak egiteko, eta dagoeneko baliozkotuta dauden C-ITS zerbitzuak –garraio adimendun kooperatiboko sistemak– erabiltzaileen eskura jartzeko. Programa horren barruan, sektoreko eragileentzako BCCra sartzeko jarraibideak ezartzen lan egingo da, bai eta programa horren barruan garatutako jakintza eta ekimenak zabaltzen ere.

**Kolaboratzailea:** Tecnalia, Ikerketa eta Garapen Teknologikoko Zentroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-azpiegiturekin lotuta, datuaren adimenari buruzko programa

Programa horren helburua da beharrezkoa den aldaketa egitea datuaren adimenak arlo hauetan izan ditzakeen potentzialidade eta onura guztiak aprobetxatzeko: bide-segurtasunaren hobekuntza, bide-sarearen mantentze lanen hobekuntza, azpiegituren kosteak murriztea. Halaber, programa horrek heltzen die arlo honetako erronkei, besteak beste, datuen babesa, elkarreragingarritasuna edo trebetasun-eskakizunak edo horiei lotutako teknologiak eta tresnak erabiltzeko kualifikazioa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Resilient Road Mobility

Klima-aldaketari eta etorkizunean gertatuko diren aurrerapen teknologikoei dagokienez, berrikuntza teknologikoko eta ez-teknologikoko ekimenen bidez, Bizkaiko azpiegituren erresilientzia indartzeko pentsatutako programa

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Istripu Ugariko bide-tarteak

Bizkaiko Foru Aldundiak urtero egiten du lurralde historikoan istripu ugariko bide-tarteen azterketa. Azken kalkulua, 2018-2022 aldiari dagokiona, Eusko Jaurlaritzari bidali zitzaion eta gaur egun 2019-2023 aldiari dagokion kalkulua egiten ari dira.

**Kolaboratzailea:** Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Jarduketen Eraginkortasunari buruzko Txostena

Bizkaiko Foru Aldundiak bide-segurtasunaren arloko jarduketen eraginkortasunari buruzko txosten espezifikoak egiten ditu, eta ezarritako neurriek ezbehar-tasaren murrizketan duten eragina ebaluatzen du, lurralde historikoan etorkizunean egin daitezkeen esku-hartzeak optimizatzeko. Txosten horiek Crash Modification Factors-en (CMF) erabilera eta eraginkortasunari buruzko beste adierazle batzuk barne hartzen dituzte, egindako jarduketek emaitza neurgarria eskain dezaten, bide-segurtasuna hobetzeari dagokionez.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Kolektibo kalteberentzako azterketa espezifikoak

Kluster-analisiaren metodologian eta datu-zientziaren integrazioan oinarrituta, kolektibo kalteberei (oinezkoak eta motoziklistak, adibidez) eta beste eragile batzuei (ibilgailu astunak, adibidez) zuzendutako azterketa espezifikoak dira. Azterketa horiek aukera ematen dute kolektibo bakoitzari eragiten dioten baldintzak, ereduak eta kokapenak zehatzago aztertzeko, ezbehar-tasaren azterketa xehatuz eta kolektibo horien segurtasuna hobetzeko aukera ematen duten ondorio espezifikoak ateraz. Helburua da talde horietan biktimak murrizten lagunduko duten esku-hartze zehatzagoak eta eraginkorragoak sortzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### “Ingurumen-korridorearen” proiektua

Jasangarritasuna ardatz duten soluzio berritzaileak eta I+G+B proiektuak garatzeko eta probatzeko espazio erreal erakusgarria. "Ingurumen-korridorea" izeneko proiektu honek ingurune eskalagarria eskainiko du, azpiegiturak diseinatu, eraiki, mantendu eta kudeatzeari aplikatutako ekonomia zirkular eta berdearen inguruko abangoardiako ekimenak gauzatzeko. Korridoreak Bizkaiko Interbiak-ek kudeatzen duen gaitasun handiko sarearen 50 km hartzen ditu kontuan.

**Kolaboratzaileak:** Interbiak / Aclima.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Dirulaguntzak edo finantzaketa:

### Bide-segurtasuna hobetzeko dirulaguntzen Dekretua

Batez ere udalei zuzendutako dirulaguntzen dekretu bat garatzea, udalerrietako sarbideetan bide-segurtasuna hobetzeko. Dekretu hau indarrean dagoen Araugintzako Ekintza Planaren barruan dago, eta datorren urtean onartu eta abian jartzea aurreikusten da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Deskontua Bizkaibusen

2024ko urtarrilaren 14tik 2025eko urtarrilaren 13ra bitartean Barik txartelarekin (Creditrans eta Gizatrans titulu propioak) ordaindutako Bizkaibuseko bidaien prezioan %50eko deskontua aplikatzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### Datu-zientzia eta kluster analisia

Datu-zientziaren erabilera eta kluster analisiaren metodologia integratzea, istripu ugariko bide-tarteak zehatzago identifikatzeko eta jarduera espezifikoak planifikatzeko. Teknologia horri esker, arazoak aurreikus daitezke eta baliabideak optimiza daitezke bide-segurtasuneko neurriak ezartzerakoan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-segurtasunaren auditoriak

Bizkaiko Foru Aldundian eta Interbiak-en garatzen diren obra eta proiektu guztietan bide-segurtasuneko auditoriak daude fase desberdinetan. Auditoria horiek honako etapa hauetan egiten dira:

1. Proiektuaren fasea.
2. Obra-fasea, bereziki zerbitzuan jarri aurreko etapan.
3. Zerbitzuan dagoeneko hasierako fasea, behin azpiegitura martxan dagoenean.

**Kolaboratzailea:** Interbiak Foru Sozietate Publikoa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Esperientzia pilotua BI-623 errepidean

BI-623 errepidean, Urkiolako mendatearen inguruan, baliza bereziak jarri dira, errepidetik gertu animaliak mugitzen ari direla detektatzen denean gidariak ohartarazteko, fauna harrapatzeko arriskua murrizten laguntzeko eta eremu horretako bide-segurtasuna hobetzeko helburuarekin.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Moisebim proiektua

Moisebim proiektua pertzepzio kontraneurriak garatzen eta probatzen ari da (adibidez, bide-markak edo balizamenduak), motor-gidarientzat arriskutsuenak diren errepideetan korridore seguruak sortzeko. Proiektua teknologiarik aurreratuenetan oinarritzen da, LIDAR teknologia, BIM modelizazioa eta ibilgailuen dinamikak konbinatzen dituen motozikleta-simulagailu bat sortuz, errepidearen benetako baldintzak zehaztasunez simulatzeko. Sentsoreak dituzten motor-gidari errealekin egindako probek gidatzearen parametro fisikoak eta dinamikoak doitzeko aukera ematen dute, proposatutako kontraneurriak ezbehar-tasa murrizteko eraginkorrak direla bermatuz. Proiektu honen helburua da motor-gidarien istripu larriak murrizteko prebentzio-neurriak sortzea, errei arriskutsuetara sartzeko arriskua minimizatzen duten trazadura seguruak egitea, adibidez, kontrako noranzkora eta benetako errepideetan erabil daitezkeen gomendio teknikoak ezartzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### LED teknologiara migrazioa

Argiteria eraginkorra eta energetikoki jasangarria izateko, kontsumoa %50 arte murrizten duena, bide-sarean 1.300 kilometro aldatu dira LED teknologiara. Gainera, LED telekudeaketaren sistemak argitasuna aldatzeko aukera ematen du, trafikoaren bilakaeraren edo errepidearen ezaugarriak aldatu ahala. 27,7 milioi euroko inbertsioarekin 2022 eta 2027 bitartean, helburua da foru errepide-sare osoak LED argiztapen sistema bat izatea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Bizkaibus APPa

Bizkaibusen APP berriak QR irakurgailu bat du, Bizkaibuseko geltokietan instalatutako QR kode guztiak irakurtzeko, bai itxaronaldiei dagokienez, bai zerbitzuaren gainerako informazioari dagokionez. Bidaiariari aukera ematen dio, halaber, geralekuak eta lineak pertsonalizatzeko, autobusaren kokapen zehatza ezagutzeko, edo gertuen dagoen geralekua geolokalizatzeko, oinezko ibilbideak ikusiz, bai eta hasieratik amaierarako ibilbideak diseinatzeko ere, transbordoak eta horien gutxi gorabeherako iraupena barne, edo gertuen dagoen geralekua geolokalizatzeko, oinezko ibilbideak eta ibilbideen gutxi gorabeherako iraupena bistaratuz.

Gainera, ibilbideekin lotutako edozein abisu edo alertari buruzko informazioa eskuratu ahal izango da, eta Bizkaibusekin harremanetan jarri, iradokizunak proposatzeko edo edozein kontsulta egiteko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Bide-segurtasunaren antolakuntza-zentralizazioa

Bizkaiko Foru Aldundia bide-segurtasunarekin erlazionatutako guztia zentralizatzen ari da, eta zeharkako zerbitzu bat jarri du abian, sailaren gainerako ataletarako ekintzak eta araudiak abiarazteko. Eusko Jaurlaritzaren istripuen datu-baseak aztertzen dira, istripu ugariko bide-tarteak aztertzen dira, eta bide-segurtasuneko barne-behatoki bat dago, gaiarekin zerikusia duen guztia dokumentatzeko eta Aldundiko sail guztiekin *feedbacka* izateko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Bide-Segurtasuneko kudeatzailea

Tresna informatiko honen bidez, Bide-Segurtasun, Hobekuntza eta Modernizazio Zerbitzuko teknikariek istripu-tasari buruzko datuak ikus ditzakete, eta aurreko jarduerekin zein egiten ari diren jarduerekin lotutako beste informazio erabilgarri batzuekin gurutzatu. Tresna horrek erabakiak hartzea eta lurralde historikoan bide-segurtasuna aztertzea errazten du. Bide-segurtasunaren kudeatzaileak, halaber, bide-segurtasuna kudeatzeko prozeduretan sortutako dokumentu guztien erregistro eta artxibo gisa balio du, eta horrek erraztu egiten du bide-segurtasunarekin lotutako dokumentu guztien trazabilitatea eta kontsulta.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Eusko Jaurlaritzatik datozen istripuen datu-baseak hobetzea

Tresna informatiko honek Aldundian jasotako eta Eusko Jaurlaritzak hartutako datuak hartzean eta pasatzean gerta daitezkeen akatsak araztu eta detektatzen ditu. Helburua da Eusko Jaurlaritzarekin informazio-trukea izatea Foru Aldundiek jasotzen duten datuaren kalitateari buruz. Jasotako datu-

baseetan dauden ahulezien berri emango da, eta, lankidetzan eta adostasunez, horiek hobetzen saiatuko dira.

**Kolaboratzailea:** Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Berrikuntza eta mugikortasun konektatua Bizkaian salgaien errepideko garraioa hobetzeko proiektu pilotua

Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) eta Bilboko Portuko Agintaritzak (BPA) berrikuntzako proiektu pilotua jarri dute abian Bizkaiko salgaien errepideko garraioaren sektoreari zuzenduta, batez ere portuko jarduerari, segurtasuna eta efizientziak hobetzeko helburuarekin. Proiektua Bizkaia Connected Corridor (BCC) ekimenaren barruan kokatzen da. Ekimen publiko-pribatu honetan enpresek mugikortasun autonomo, konektatu eta kooperatiboko teknologia aitzindariak (CCAM) eta azpiegitura adimendunak probatzeko aukera dute. Horrela Bilboko Porturako sarbideak BCCri lotutako C-ITS zerbitzuen hedapen-eremuan (epuertobilbao) sartuko dira, foru-errepideen sareko koordinazioa hobetuz).

2023ko irailean hasitako proiektuak bi fase osatu ditu:

1. BCCren estaldura Bilboko portura sartzeko errepidera (N-644) eta porturako sarbideetara hedatzeari ekin zitzaion, horretarako RSU (Road Side Unit) antenak instalatuz; era berean, Portura iristen diren ibilgailuen ibilbideko posizionamendua denbora errealean monitorizatzeko zerbitzuak ezarri ziren. Sistema honek aukera emango du portuaren okupazio-maila aurreratzeko eta itxaronaldi luzeak saihesteko abisuak sortzeko.
2. Bilboko Portuko aplikazio mugikor ofiziala berritzea, jarduneko eta bidean dauden ibilgailuentzat foru-errepideen sareko gertaera eta gorabeherei buruzko informazio-zerbitzu bat sartuz. Garraiolariei aukera emango zaie bidean daudela sarrera-erregistroa aldatzeko, produktibitatea optimizatzeko eta denbora errealean bidaiaren baldintzetara hobeto egokitzeko. Portura sartzeko leihoen kudeaketa optimizatzeak aukera emango du garraiolariei zein zamaketariei eskainitako zerbitzua hobetzeko

**Kolaboratzailea:** Tecnalia, Ikerketa eta Garapen Teknologikoko Zentroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | **7** | **8** | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Bizkaibizi, bizikleta publikoen zerbitzua

Bizkaiko Foru Aldundiak eta 9 udalerriek herritarren esku jarri dituzte 650 bizikleta elektriko eta 78 ainguraketa-puntu lurraldean biztanleria-dentsitaterik handiena duen eremuan mugikortasun jasangarria sustatzeko.

16 urtetik gorako edozein pertsonak alta hartu dezake Bizkaibizi zerbitzuan eta bizikleta elektriko bat alokatu ahal izango du. Nahikoa da www.bizkaibizi.eus webgunean izena ematea. Bertan zerbitzuaren informazio guztia eskura dago: udalerri partaideak, aparkatu eta kargatzeko guneen mapa, berriak, ohiko galderak, gorabeherak, etab. APPa ere webgune horretatik deskargatu daiteke.

**Kolaboratzaileak:** Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### “Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideetako bide-segurtasunaren kudeaketa" ikastaroa”

Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituren eta Lurralde Garapenaren Saileko teknikarientzako ikastaroa, Bide Segurtasun, Hobekuntza eta Modernizazio Zerbitzuak antolatuta. Ikastaroak ikuspegi praktikoa izan zuen:

- Saileko bide-segurtasuneko helburuak teknikariei hurbiltzea.
- Teknikariak gaitzea bide-segurtasuna kudeatzeko dauden prozedura eta tresnetan, eguneroko lanean aplika ditzaketela ziurtatuz.

Ikastaroak hiru eguneko iraupena izan zuen eta zazpi modulu tekniko izan zituen:

1. Sistema Segurua.
2. Bide-Segurtasuna Kudeatzeko Prozedurak.
3. Hobetu daitezkeen elementuen eskuliburua.
4. Erabiltzaile kalteberak.
5. Crash Modification Factors (CMF).
6. Ibilgaiuentzako Euste-Sistemak.
7. Kasu Praktikoak.

Ikastaro horri esker, teknikariek beren ezagutza eta trebetasun praktikoak hobetu ahal izan zituzten, eta Bizkaiko errepideetan bide-segurtasuneko prozedurak hobeto aplikatzen zirela ziurtatu zuten. Bereziki, erabiltzaile kalteberen babesa eta Sistema Seguruaren printzipioen ezarpena indartu ziren.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Bide-segurtasuneko lantaldea

Bizkaiko Foru Aldundiko Bide Segurtasuneko, Hobekuntzako eta Modernizazioko Zerbitzua Autonomia Erkidegoetako eta Foru Aldundietako Errepideetako Zuzendari Nagusien Mahaiko Bide Segurtasuneko Lantaldean sartu berri da, 1997tik Espainiako Errepide Elkarteak koordinatuta. Lantaldearen helburuak honako hauek dira:

- Autonomia Erkidegoetako eta Foru Aldundietako Errepideetako Zuzendari Nagusien Mahaitik eratorritako enkarguei erantzutea.
- Errepideen sare autonomiko eta foralararen arazo komunen aurrean kezkak partekatzeko eta konponbide homogeneoak bilatzeko topagune izatea.
- Konponbideak proposatzea araudirik ez dagoen arloetan, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioaren araudietan oinarrituta.
- Errepideen sare autonomikoari eta foralari buruzko datuak eta esperientziak partekatzea, irizpideak bateratzeko eta bide-segurtasuna hobetzeko.

Lantaldearen jarduerak:

- Hainbat arlotan gomendioak egitea, hala nola abiadura murrizteko gailuetan, sare lokaletako euste-sistemetan eta biribilguneetako bide-segurtasunean.
- Istripuen kontzentrazio-tarteak seinaleztatzeko eta bide-azpiegituren segurtasunari buruzko Europako Zuzentaraua aplikatzeko irizpideak bateratzea.

- Istripuekin lotutako datuak eta esperientziak biltzea sare autonomikoan, fauna ez harrapatzeko neurriak, eta interes komuneko beste eremu batzuk.

Martxan dauden proiektuak:

- Faunaren inplikazioa duten bide-istripuei buruzko galdetegia, Trafiko Zuzendaritzarekin lankidetzan.
- Administrazioetan bide-segurtasunera bideratutako inbertsioari eta giza baliabideei buruzko datuak biltzeko prozesua, lurraldeen arteko egoera aztertu eta alderatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | **6** | **7** | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Red de Ciudades que Caminan

Aldundia Red de Ciudades que Caminan barneratzea. Irabazi asmorik gabeko nazioarteko elkarte bat da eta horren kide dira oinezkoen egoera hobetzeko interesa duten udalerri eta lurraldeak. Horiek irisgarritasun unibertsala, bide-segurtasuna eta ingurumena bera hobetzeko ekimenak abian jartzen eta trukatzen dituzte.

Izena ematean, foru erakundeak sarearen hamar Printzipioak izenpetzen ditu bere politika publikoen elementu inspiratzaile gisa, besteak beste:

- Pertsonak lehenestea hiriak eta lurraldeak planifikatzeko orduan
- Espazio publikorako eskubidea, eta horrek kaleetan ibilgailuen presentzia murriztea dakar.
- Oinez ibili ahal izateko hirien diseinua sustatzea, oinarrizko zerbitzuetara iristeko distantziak minimizatuko dituena eta oinezkoentzako bideak eta egoteko erabilerak handitzearen alde egingo duena.
- Bide-segurtasuna areagotzea, adibidez, orduko 30 kilometroko gehieneko abiadura sustatuz hiri-kaleetan.

**Kolaboratzailea:** Red de Ciudades que Caminan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | **6** | **7** | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide Segurtasunaren Behatokia

Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko teknikariei eta zuzendariei zuzendutako plataforma, Bizkaiko errepideen administrazioarekin lotutako lan guztietan bide-segurtasunaren kultura integratua sustatzeko.

Behatokiaren bidez, teknikarientzat interesgarriak diren artikuluak, albisteak eta aldizkako dibulgazioak argitaratzen dira, bide-segurtasunari buruzko gaietan sentsibilizatzeko eta prestatzeko, eta kultura hori proiektuen etapa guztietan eta sailaren barruan erabakiak hartzean islatzen dela ziurtatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kontrola edo kudeaketa:

### Neguko Bidezaintza Plana

Dispositibo horren barruan daude sareko gune esanguratsuetan kokatutako 431 profesional, elurra kentzeko 90 makina eta sei estazio meteorologiko. Estazio horiek informazio eguneratua eta iraunkorra ematen diete kontrol-zentroei. Berrikuntza gisa, kanpaina honetan gatza biltegiratzeko nabe bat instalatu da. Instalazio hori neguan klimatologia txarra duen eremu batean dago, eta neguko bidezaintza nabarmen hobetzen du, urtze-elementua erabilera-baldintza egokietan kontserbatuko dela bermatzen baitu. Gainera, urtze-elementua kanpaina desberdinetan kudea daiteke eta gehiago pilatu daiteke. Gainera, Planak abangoardiako teknologia du baliabideen kudeaketan eraginkortasuna maximizatzeko, hala nola elurra kentzeko kamerak eta software aurreratua, flota denbora errealean monitorizatu eta kudeatzeko aukera ematen dutenak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Itsasadar azpiko tunelei buruzko nazioarteko kongresua

Bizkaiak ibai azpiko tunelei buruzko nazioarteko biltzarra hartuko du, eta itsasadarraren azpiko tunela izango da eguneko proiektu protagonistetako bat. Ekitaldian, ibaipeko eta itsaspeko tunelen hainbat adibide eta proiektu aurkeztuko dira, Norvegiako, Herbehereetako, Alemaniako eta Belgikako azpiegitura horien eraikuntzan, ustiapenean eta segurtasunean adituak diren nazioarteko adituen eskutik. Horrez gain, hainbat eraikuntza-esperientzia azalduko dira, hala nola Istanbulgo Eurasia tunelarena. Bizkaiko Foru Aldundiak ere ezagutzera emango ditu itsasadarraren azpiko tunelaren proiektua eta alderdi teknikoak.

**Kolaboratzailea:** PIARC, Asociación mundial de la Carretera.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Mugikortasun Aktiboaren Adierazpena

Mugikortasun Aktiboaren Adierazpenaren helburua mugikortasun aktiboago eta osasungarriago baterantz aurrera egin ahal izateko ikuspegi partekatua sortzea eta erreferentzia erabilgarria eraikitzea da, politikak eta jardun-ildo berriak bideratuz. Lau esku-hartze eremu handi identifikatzen ditu: Hirigintza, Espazio Publikoaren banaketa, Intermodalitatea eta Komunikazioa. Mugikortasun Aktiboaren Manifestua osatzeko jardunaldietan publiko, pribatu eta gizarte zibileko hainbat erakundek hartu dute parte.

**Kolaboratzaileak:** Bilboko Udala / Red de Ciudades que Caminan / Bizi Eskola.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak |
|---|

| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

### Bizkaibizi erabiltzeko esperientzia hobetzeko kanpaina

Herritarrei zerbitzuaren alderdi jakin batzuk hobeto ulertzeko laguntza ematea. Kanpainak bost azalpen-bideo ditu, euskaraz eta gaztelaniaz, 20 eta 30 segundo artekoak, bizikleta publikoen erabilerari buruzko alderdi jakin batzuk azaltzeko: nola erregistratu Bizkaibizin; nola alokatu bizikleta; nola itzuli; zirkulazio-arauak betetzea; parking modua.

**Kolaboratzaileak:** Barakaldo, Berango, Bilbo, Erandio, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestaoko Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

### Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### bideON ARRATIAN garraio jasangarriko zerbitzua

Unibertsitateko gazteentzat eta 65 urtetik gorakoentzat planifikatutako eskatu ahalako garraio-zerbitzuaren esperientzia pilotua, ohiko garraio publikoaren konektagarritasun-nodoak eta zerbitzu nagusiak dauden hiriguneetatik urrun dauden landa-eremuetan bizi direnentzat. Ekimena informazio eta erregistro bulegoa jendearentzat zabaltzearekin hasten da. Foru Erakundeak proiektuaren fase pilotua finantzatzen du, urtebetez luzatuko dena eta eskualdean identifikatutako erronka nagusietako bat gauzatzen duena Herri Txiki, Aukera Handi parte-hartze prozesuaren bidez, Bizkaiko udalerrietan bizi-kalitatea hobetzeko, zerbitzu publikoen bidezko eskaintza eskainiz.

**Arratiako Udalerrien Mankomunitateak sustatua.**

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Kanpaina edo komunikazioa:

### Kontzientziazio bideoak garraio publikoan

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# 4. Gipuzkoako Foru Aldundia

## GARATUTAKO EKINTZAK

**Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako ekintzak: 31**

**Gipuzkoako Foru Aldundiak parte hartzen duen beste eragile batzuek sustatutako ekintzak: 2**




## HARTUTAKO KONPROMISOAK

Eragile sinatzaileak gauzatutako ekintzek Ituneko konpromiso hauek garatu dituzte:

- ✓ 1. Konpromisoa: Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda ezartzea.
- ✓ 2. Konpromisoa: Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea.
- ✓ 3. Konpromisoa: Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea.
- ✓ 4. Konpromisoa: Faktoreen arteko interdependentziari heltzea.
- ✓ 5. Konpromisoa: Mugikortasun aktiboa sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea.
- ✓ 6. Konpromisoa: Hiri-eredu berrien alde egitea.
- ✓ 7. Konpromisoa: Ezbehar-tasa handiko eremuak eta hobekuntza potentzial handiko eremuak ezabatzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea.
- ✓ 8. Konpromisoa: Kudeaketa integralaren alde egitea.
- ✓ 9. Konpromisoa: Bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde lan egitea.
- ✓ 10. Konpromisoa: Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea.
- ✓ 11. Konpromisoa: Kolektibo kalteberen babes berezian arreta jarriko duten politikak bultzatzea.
- ✓ 12. Konpromisoa: Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea.
- ✓ 13. Konpromisoa: Bide-erabiltzaileei arriskuei eta lege-ondorioei buruzko informazioa ematea eta errehabilitazioaren aldeko apustua egitea.
- ✓ 14. Konpromisoa: Laneko Bide-Segurtasuna Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketaren barruan sartzea.

# Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriaren Plana

"Gipuzkoako Lurralde Historikoko Mugikortasun Jasangarriaren Plana" egiteko laguntza teknikoko zerbitzuaren kontratazioa abian jartzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | **8** | 9 | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Indarkeria matxistaren aurkako protokoloa Lurraldebusen

Egiaztatu da emakumeek Lurraldebusa erabiltzen dutenean izaten dituzten segurtasunik gabeko egoera batzuk ibilgailuetatik kanpo gertatzen direla, eta, beraz, autobus-geltokiak indarkeria matxistarik gabeko guneak ere izan daitezen lan egin nahi da. Hala, indarkeria matxisten aurkako lehen protokoloa egin da Lurraldebusen, ikuspegi integral batetik, autobusen barruan zein geltokietan eta haietarako sarbideetan zerbitzua ematea barne hartzen duena. Azken gai horiek udalaren eskumenekoak dira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Programa edo neurria:

### Gipuzkoako Pasabide-Azpiegituren Jardueren Plangintza berria

Esku-hartze partzial edo integralen bat behar duten zubi eta bidezubien sendotze eta birgaitze obretan. Bide Azpiegituretako Departamentuak ekin dion aldi berriari erantzuten dio, "apustu bikoitz" batean zentratzen baita: "teknologian, batetik, eta sare osoko azpiegiturak eguneratzean, bestetik". Urtean, gutxi gorabehera, lehentasunezko eta oinarrizko sareko 80-100 egitura berrikusten dira, bai eta eskualdeko eta tokiko sarea osatzen duten guztiak ere. Lan horiek mantentze-zerbitzu gisa garatzen dira, baina kontserbazio-egoera txarrena dutenei ikuskapen bereziak egiten zaizkie.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Garraio publikorako emakidak berritzea

Bidaiarien garraio kolektiboko zerbitzuetarako emakidak aldian behin berritzea. Orain dela gutxi Oarsoalderako egin da, Gipuzkoa osoko handiena bidaiari kopuruari dagokionez, eta hurrengo urteetan

berriztatze gehiago aurreikusten dira. Horren bidez kudeatzen dira, halaber, jaietako ibilbideetan edo ordutegietan izaten diren aldaketen ondoriozko aldaketak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Lurraldeko istripu ugariko bide-tarteen analisia

Hiru urtean behin, egungo araudiari jarraituz, lurraldeko istripu ugariko bide-tarteen azterketa egiten da. Hori kalkulatzeko, algoritmo estandarraren arabera, biktimak eragin dituzten istripuak (hildakoak, larriki zaurituak eta arinak) izan dituzten errepide-puntuak hartzen dira kontuan. Sailak algoritmo hori hobetu du, biktimarik gabeko istripuak gertatu diren puntuak ere sartu ditu ekuazioan, eta biktima-maila desberdinen garrantzia haztatu du, biktimarik gabeko istripuak gertatzen diren puntuak ere kontuan har daitezen. Hori horrela egin da biktimarik gabeko istripuak nagusi diren puntuak ere garrantzitsuak direlako eta zaindu egin behar direlako.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Ezbehar-tasa murrizteko hobekuntza-proposamenak

Istripu ugariko bide-tarteak definitu eta gero, aztertu eta hobekuntzak proposatzen dira, ezbehar-tasa murrizteko. Hobekuntza horiek mota guztietakoak izan daitezke: tartean abiadura murrizteko radar bat instalatzeko eskaera, zorua birgaitzea, seinale bertikalak edo horizontalak hobetzea, etab.

Istripu-tasa bereziko tarte bat detektatzen bada, bide-segurtasuna hobetzeko eta, ondorioz, istripu-tasa murrizteko ekintzak aztertu eta proposatzen dira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Istripu hilgarrien ebaluazioa errepidearen ikuspegitik

Istripu hilgarri bat gertatzen denean, egoera eskura dauden datu guztiekin ebaluatzen da, eta aztertzen da, errepidearen ikuspegitik, egoera hobetu daitekeen eta, ahal den neurrian, etorkizunean biktima gehiago izatea saihestu daitekeen.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-segurtasuneko ikuskapenak TEN-T sarean

TEN-T sarean (Europa Barneko Garraio Sarea) bide-segurtasuneko ikuskapenak egitea, eta, eskaripean, beste errepide-mota batzuetan. Gipuzkoa TEN-Ten (Europako Garraio Sarea) parte da ardatz atlantikoan, Burdeos-Donostia nodoaren barruan. “Horrek interes bereziko puntu bihurtzen du lurraldea,

elkarreragingarritasun-testak egiteko eta garraioari aplikatutako teknologia berriak garatzeko eskualde gisa. Bide Azpiegituretako Departamentua aurrerapausoak ematen ari da korridore hori digitalizatzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Tunelen egoerari buruzko aldizkako txostenak egitea

TEN-T sareko tunelen kudeaketaren arduradun gisa, tunelen egoerari buruzko txostenak egiten dira aldizka.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Hobekuntza-proiektuak idaztea

Bidegurutzeak, biribilguneak, bihurgune arriskutsuak eta abar hobetzeko proiektuak idazten dira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Dirulaguntzak edo finantzaketa:

### Udalentzako laguntzak mugikortasun jasangarriko planak egitea eta/edo eguneratzea finantzatzeko

Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei dirulaguntzak ematea, hiriko mugikortasun jasangarrirako planak egiteko, eguneratzeko eta mugikortasun jasangarria lortzeko plan horietan aurreikusitako neurriak garatzeko eta/edo ezartzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### 2.500 biztanletik beherako udalerrietako udalekiko lankidetza-estrategia

Bide Azpiegitura eta Lurralde Estrategia Sailak 2.500 biztanletik beherako udalerrietako udalekiko lankidetza-estrategia bat garatu du urte hauetan, bide-segurtasuna hobetzeko eta errepideko erabiltzaileen arteko bizikidetzarako, udalerria zeharkatzen duten zeharbideen eremuan. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak hauek dira:

- Ikuspena hobetzea errepideen foru sarerako sarbideetan.
- Sarbideetatik foru errepideetara isur daitezkeen uren bilketa.
- Sarbideen amaierako zatiak hormigoitu edo asfaltatzea, Aldundiaren titulartasuneko errepideetako galtzada ez zikintzeko.
- Foru errepideetatik oinezkoen edo txirrindularien zirkulazioa ateratzea dakarten jarduerak.
- Bide segurtasuna hobetzeko jarduketak, hala nola, foru errepideetako bidegurutzeak seinaleztatzea, semaforoak jartzea eta argiztatzea.

**Kolaboratzaileak:** 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### A-15 errepideko tunelak araudiari egokitzea

San Lorentzoko tunelaren egokitzapen osoa. Belabieta, Oindolar eta Gorosmendiko tuneletan, horietako bakoitzaren hodi batean egingo da jarduketa, 2025ean Oindolar eta Gorosmendi eta 2026an Belabieta amaitzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** | **13** | **14** | **15** | **16** | **17** |

### Motor-gidarientzako babesa duten euste-hesiak instalatzea

Bigarren mailako sareko errepideetan motor-gidarientzako babesa duten euste-hesiak instalatzea, trazadura oso zorrotza duten errepideetan galtzadatik irtetean altuera batetik beherako erorketetatik babesteko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### GI-2133 eta GI-3371 errepideen elkargunea hobetzea

Zaldibian, GI-2133 eta GI-3371 errepideen elkargunea hobetzea, ezkerrera segurtasun handiagoz biratzeko. Neurriak errepidearen egoerara egokitzen dira, baina, kasu batean, ibilgailuentzako espazio bat dago, itxaroteko erdiko erreian gelditzeko maniobra hori seguruago egiteko, eta, bestean, azelerazio-errei bat dago errepidearen ardatzean.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Ibai Ondoko biribilgunea eraikitzea GI-2638 errepideko 1+000 KPan

Ibai Ondoko biribilgunea eraikitzea GI-2638 errepideko 1+000 KPan, Lezon. Proiektu honek Lezoko GI-2638 eta GI-3440 errepideen arteko elkarguneko "T" erako aurreko bidegurutzea ordezten du. Horrek, oraindik ere, mugimendu guztiak egitea ahalbidetzen du, baina bide-segurtasuna nabarmen hobetu du.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Mikroaglomeratuak zabaltzea, sareko zenbait punturen marruskadura hobetzeko

Zoladura lehengoratzeko, drainatzeko eta bideak horizontalki seinaleztatzeko lanak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Sareko hainbat puntutako argiztapena hobetzea

Sareko hainbat puntutako argiztapena hobetzea, batez ere erabiltzaile kalteberak dauden guneetakoa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## AP-8 eta AP-1 errepideetan mugaz gaindiko korridorea ezartzea

AP-8 eta AP-1 errepideetan mugaz gaindiko korridorea ezartzea, errepide horietan izan daitezkeen gertakariak (istripuak, obrak edo muturreko meteorologia) bidaltzeko ekipatutako ibilgailuekin komunikatzen baitira. Teknologia horrek, era berean, ibilgailuen datuak jasotzeko aukera ematen du, eta, hala, funtzionalitate berriak garatzeko aukera, hala nola, batez besteko abiadurak kalkulatzea eta, abiadura ertain-baxukoa bada, tarteko arazoen abisu goiztiarra ematea.

**Kolaboratzailea:** CEIT Ikerkuntza Zentroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Txirrindulariak detektatzeko sistema aitzindaria instalatzea

GI-636 errepidean, Irundik eta Hondarribitik Gaintzurizketara igotzeko tartean, txirrindulariak detektatzeko sistema aitzindari bat instalatzea. Txirrindularia ikusmen artifizialaren bidez detektatzen da, eta inguruan dabiltzan ibilgailuei abisatzen zaie. Gaitutako gailuak dituzten ibilgailuei balizen bidez emandako informazioaren bidez jakinaraziko zaie haien presentzia eta egoera. Baliza horiek, halaber, pantaila duten bi alerta-seinaletara bidaliko dute informazioa, eta errepidean zikloturistak daudenean baino ez dira aktibatuko.

**Kolaboratzailea:** CEIT Ikerkuntza Zentroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ibilgailuen emisioak denbora errealean detektatzeko gai den sistema adimenduna

Gipuzkoa Living Lab-en esparruan, Gipuzkoako Foru Aldundiak errepideei aplikatutako teknologia berrien eta adimen artifizialaren inguruko testak eta proba pilotuak egin ditu. Adibidez, 2023-2024an ibilgailuen emisioak denbora errealean detektatzeko gai zen sistema adimendun baten proba pilotua egin zen. Proba-fasea gaindituta, teknologia horiek 2024an instalatu dira lurraldeko errepideetan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | 3 | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Mobile Mapping, errepideen inbentarioa kudeatzeko tresna

Errepideen inbentarioa kudeatzeko tresna, kalitate topografikoa duen *Mobile Mapping* jasotzean oinarritua. Horri funtzionalitate berriak gehitzen zaizkio, errepideen kudeaketa egokiagoa eta eraginkorragoa egiteko aukera ematen du, eta langileen laneko segurtasuna hobetzen laguntzen du. Hala, bulegotik egin daitezke lehen landa-lanean egin behar ziren lan batzuk.

**Kolaboratzailea:** CEIT Ikerkuntza Zentroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | **4** | 5 | 6 | 7 | **8** | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | **14** | 15 | 16 | 17 |

### Mugikortasunarekin lotutako informazioa eskuratzeko eta prozesatzeko sistema zentralak berritzea

Informazioa hartzeko eta sistematizatzeko sistema zentralak berritzea. Udalei laguntzea eta Lurraldebusen informazio-sistema doan aldatzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Mugiren txartel birtualaren inplementazioa

Mugi birtuala inplementatzea, Gipuzkoako garraio-txartela mugikorrean eramateko eta formatu fisikoaren mende ez egoteko aukera emango duen sistema.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### BAT eta Barik txartelen interoperabilitatea Lurraldebuseko zerbitzuetan

Barik, Mugi eta BAT txartelen interoperabilitatea osatu da, eta, horri esker, edozein herritarrek garraio publikoan bidaiatu ahal izango du Euskadi osoan bere txartelarekin, edozein lurraldetan dela ere.

Eusko Jaurlaritzarekin **batera sustatua**: Mugikortasun Jasangarriaren Saila / Foru Aldundiak / Udalak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Bidasoaldeko mugikortasuna modu integralean aztertzeko erakunde arteko mahaia eratzeko proposamena

Erakunde arteko mahai bat eratzea proposatzen da, etorkizunera begira lankidetzan aritzeko ibilbide-orri bat adostuko duena. Mahaiaren helburua foru sareko errepideei zein udalen eskumenekoak diren errepideei dagozkien proposamenei heltzea izango litzateke, eta, horretarako, funtsezkoa da konponbideak modu integralean aztertzea.

**Kolaboratzaileak:** Hondarribiko Udala / Irungo Udala.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Koordinazio-bilerak

Lurraldeko bide-segurtasunean inplikatutako eragileen arteko hileroko koordinazio-bilerak, obrei, kirol-ekitaldiei eta/edo trafikoan eragina izan dezakeen beste edozein gailuri buruzko informazioa partekatzeko, intzidentziaren alderdiak koordinatzeko eta hobetu beharreko puntuak hobetzeko.

**Kolaboratzaileak:** BIDEGI / Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza / Ertzaintza / Mikeleteak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Irteera eta itzulera operazioa koordinatzeko dispositiboa Bidasoako mugan

Biriatu ingururako udako trafikoko eta mugikortasuneko dispositiboko agenteak koordinatzeko bilera. Bilera horrek jarraipena eman dio erakundeen arteko lankidetzari, azken urteotan operatiboa antolatzeko aukera eman baitu, udako irteera eta itzulera operazioen eraginak murrizteko.

**Kolaboratzaileak:** Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza / Ertzaintza / Hondarribiko Udala / Irungo Udala.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | **8** | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kontrola edo kudeaketa:

### Neguko Bidezaintza Plana

Neguko Bidezaintza Planak bide-sare nagusiaren eta bigarren mailakoaren segurtasuna eta baldintza egokietako mantentze-lanak bermatzen ditu. Helburua da errepide sarea beharrezko segurtasun mailetan mantentzea izotza eta elurra daudenean, bai sare nagusian eta baita bigarren mailako sarean ere.

**Kolaboratzaileak:** Eusko Jaurlaritza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza / Ertzaintza / Nafarroako Foru Gobernua.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Mugikortasunaren Europako Astea

Mugikortasunaren Europako Astean, furgoneta-tailer bat Gipuzkoako hainbat herritan ibili zen, eta bizikleten oinarrizko konponketa-zerbitzua eman zien Mugi pertsonalizatua aurkezten zutenei. Gainera, lurraldeko 10 establezimenduk bat egin zuten kanpainarekin, bizikletak prest jartzeko zerbitzua eskainiz. Ekimen honek bizikleta bezalako modu jasangarriak sustatu nahi zituen.

Aldi berean, tailerrak egin ziren Irungo eta Tolosako DBHko zentroetan, gazteen artean bizikletaren erabilera arduratsua sustatzeko, eta alternatiba hori sustatu zen eguneroko joan-etorrietarako lehen aukera gisa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | **7** | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide On" Pack-a

Larrialdi-argi homologatuz eta lurraldeko errepideei buruzko informazioaz osatutako opari-kutxa, lehen baimena lortzen duten gipuzkoarrentzat.

**Kolaboratzailea:** BIDEGI.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Dirulaguntzak edo finantzaketa:

### Mugikortasun jasangarriko politiketan inbertsio berriak BIDEGIren eskutik

Bidegi foru sozietateak bere diru sarreren partidatik 32 milioi euro bideratuko ditu datozen lau urteotan, lurraldean mugikortasun jasangarria indartzera bideratutako politika publikoetan inbertitzeko, lau ataletan banatuta, foru-arduradunek aurreratutako akordioaren arabera:

1. Errepideko garraioak eragindako kutsadura gutxitzearekin zerikusia duten proiektuetara bideratuta, garraio publikoko zerbitzuan hobekuntzak bultzatuz.
2. Baliabide berrien erabilera ibilgailuen CO2 errendimendua eta energia-errendimendua hobetzeko, Lurraldebuseko zerbitzuko flota berrituz.
3. Bidegorri sarea mugikortasun jasangarriaren alternatiba gisa garatzeko eta hobetzeko partidak.
4. Inbertsioak bideratu intermodalitatea sustatzen duten azpiegituretara.

BIDEGIk **sustatua**.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak |
|---|

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Gipuzkoako garraio publikoan doan bidaiatzeko pertsona ezinduen laguntzaile txartelak

“Laguntzailearen txartela" eskatzeko aukera ematen die Mugi txartelaren titularrak diren eta mendekotasun egoera aitortua duten pertsonei, laguntzaileek Gipuzkoako garraio publikoan doan bidaiatu ahal izan dezaten. Horrela, txartel berri bat aktibatu da, mendekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzaileek, itsuen laguntzaileek edo ikusmen-urritasun larria dutenen laguntzaileek eta gurpil-aulkien erabiltzaileen laguntzaileek Gipuzkoako garraio publikoan doan bidaiatu ahal izan dezaten.

Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA) **sustatua.**

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# 5. Bilboko Udala

## GARATUTAKO EKINTZAK

**Bilboko Udalak sustatutako ekintzak: 17**

**Bilboko Udalak parte hartzen duen beste eragile batzuek sustatutako ekintzak: 13**




## HARTUTAKO KONPROMISOAK

Eragile sinatzaileak gauzatutako ekintzek Ituneko konpromiso hauek garatu dituzte:

- ✓ 1. Konpromisoa: Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda ezartzea.
- ✓ 2. Konpromisoa: Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea.
- ✓ 3. Konpromisoa: Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea.
- ✓ 4. Konpromisoa: Faktoreen arteko interdependentziari heltzea.
- ✓ 5. Konpromisoa: Mugikortasun aktiboa sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea.
- ✓ 6. Konpromisoa: Hiri-eredu berrien alde egitea.
- ✓ 7. Konpromisoa: Ezbehar-tasa handiko eremuak eta hobekuntza potentzial handiko eremuak ezabatzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea.
- ✓ 8. Konpromisoa: Kudeaketa integralaren alde egitea.
- ✓ 9. Konpromisoa: Bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde lan egitea.
- ✓ 10. Konpromisoa: Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea.
- ✓ 11. Konpromisoa: Kolektibo kalteberen babes berezian arreta jarriko duten politikak bultzatzea.
- ✓ 12. Konpromisoa: Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea.
- ✓ 13. Konpromisoa: Bide-erabiltzaileei arriskuei eta lege-ondorioei buruzko informazioa ematea eta errehabilitazioaren aldeko apustua egitea.
- ✓ 14. Konpromisoa: Laneko Bide-Segurtasuna Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketaren barruan sartzea.
- ✓ 15. Konpromisoa: Istripuaren ondoren erantzun eraginkorra ziurtatzea.
- ✓ 16. Konpromisoa: Itun honetako akordioak ezagutzera ematea.

# Bilboko Udalak sustatutako ekintzak

## Legea edo araudia:

### Bilbaobizi zerbitzu berriaren prezioak eta zerbitzu horren erabilera arautzen dituen ordenantza

Bilbaobizi bizikletak mailegatzeko udal zerbitzu bat da, eta bizikleta bidezko joan-etorriak bultzatu eta indartzea du helburu; 2025eko apirilean sistema modernoago bat inplementatzea aurreikusten da. Bilboko Udalak hasiera batean onartu zuen 2024ko azaroan bizikleta elektrikoak mailegatzeko zerbitzuaren prezio berriak arautzen dituen ordenantza, baita zerbitzu berri hori erabiltzeko baldintzak arautzen dituen erregelamendua ere. Bilboko Udaltzaingoak parte hartuko du udal bizikletak erabiltzeko ordenantza betetzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | 4 | **5** | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Plana edo estrategia:

### Bilboko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana 2016-2030

Bilboko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana 2016-2030 epealdian Bilboko Hiribilduaren mugikortasun jasangarriaren arloan hartu beharreko norabidea zehazten eta jokabideak koordinatzen dituen plana da.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bilboko kaleak Oinezkoentzat jartzeko Plana

Kaleak Oinezkoentzat jartzeko Plana 2016-2030 aldirako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Planaren helburuak betetzeko ari da lanean. Helburu horiek hiriko oinezkoentzako eremuekin lotuta daude, hala nola oinezkoen arteko lotura hobetzea eta eredu eraginkorra, bidezkoa eta funtzionala garatzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Programa edo neurria:

### Eskola Bide Seguruak proiektua

Eskola-bide seguruen proiektua, eskola-inguruneen kalitatea hobetzeko helburua duena.

Eskola-Bide Seguruen proiektuaren barruan "Denon Zorua" izeneko partaidetza-prozesu baten bidez eskola-ingurune batzuen seinaleztapena hobetzeko proiektu pilotu bat dago. Proba pilotu hori 3 egunean

gauzatuko delarik, eskola-inguruko galtzada birdiseinatzen eta margotzen ari dira, hirigintza taktikoan eragiten jarraitzearren, kostu txikiko eta epe motzeko baina eragin luzeko ekintzak diseinatuz. Ikasleek eurek proposatzen dituzte, hainbat saiotan, euren ustean zelakoak izan beharko liratekeen eskola-inguruak, eta euren ekarpenak egiten dituzte espazio horien etorkizuneko diseinuari buruz. Prozesu parte-hartzaile horretan sartzen dira, ondoren, hezkuntza komunitatea eta familiak ere.

Horrela, eskolako zenbait ingurune oinezkoentzat jarri ahal izan dira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Emisio Gutxiko Eremua ezartzea

2024ko ekainaren 15ean sartu zen indarrean Bilboko Emisio Gutxiko Eremua (EGE), Abando-Indautxun ibilgailu batzuei sarbidea mugatzen diena. Irailaren 9ko astetik aurrera hasi ziren zigorrak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | 2 | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Azpiegitura edo teknologia:

## Bide-segurtasuna hobetzeko eguneroko jarduerak

Bide-segurtasuna hobetzeko eguneroko jarduerak, hiri-sarea etengabe hobetzeko egokitzapenak etengabe egin, indartu eta hobetzeko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | **6** | **7** | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Autobus geltokietan irisgarritasuna hobetzea

Autobus geltokietan eta espaloietan irisgarritasuna hobetzea, geltoki horietara doazen oinezkoentzako ibilbideetan. Autobus-geltokien inguruneetan ere hobekuntzak ezartzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | **6** | **7** | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Espaloiak beheratzea eta belarriak hobetzea

Elkarguneetan irisgarritasuna eta bide-segurtasuna bermatzeko lanak egitea. Horretarako, oinezkoentzako ibiak beheratuko dira, mugikortasun murriztua duten pertsonei bidea errazteko, eta belarriak sortuko dira, oinezkoek eta gidariek hobeto ikus ditzaten.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | **6** | 7 | 8 | **9** | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Igogailu publikoen sarea ezartzea

Hirian igogailu publikoen sare bat ezartzea, motordunik erabili gabe egiten diren joan-etorrien kopurua handitzeko eta, beraz, zirkulazioan dauden ibilgailuen kopurua eta istripuak izateko aukera murrizteko. 72 igogailuz osatutako sarea da, eta eguneko 24 orduetan funtzionatzen dute.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Metrominutua Oinez mapa

Metrominutua mapa sinoptiko bat da, eta hiri bakoitzeko zenbait punturen arteko distantziak eta denborak neurtzen ditu Mapak hiri bakoitzaren zentralitate nagusiak (zerbitzuak, plazak, parkeak, auzo-zentroak...) eta haien arteko distantzia adierazten ditu, metrotan eta minututan adierazita. Metro-mapetako ikusizko kodeak erabiltzen ditu, hiri handietako garraiobide esanguratsuetako bati keinu eginez, baina hiriei aplikatuta. Helburua da hirien leku ezagunen arteko hurbiltasuna agerian uztea eta oinez ibiltzeko kulturaren alde sentsibilizatzea. Distantzia eta denbora laburrak direnez, prestasun handiagoa izango dugu gure helmugara oinez joateko eta joan-etorriak oinez egiteko.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Metrominutua Bizikletan mapa

Hiriko puntu nagusiak jasotzen dituen mapa, bi gurpilen gaineko mugikortasun jasangarria bultzatzen jarraitzeko. 2024ko Mugikortasunaren Europako Astearen esparruan, Hiriak bizikletaren erabilera sustatzeko tresna hau zabaltzen du "Bilbo, pedalei eragiteko hiri ezin hobea" lelopean. Informazio-tresna berri honek hiriko punturik urrunenak bizikletaz zeharkatzeko behar diren distantziak eta denborak neurtzen ditu, eta hirian zehar modu jasangarriagoan eta osasungarriagoan mugitzeko modu hori azpimarratzen du.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Bide-Hezkuntzako urteko programak

Bilbo Eremuko itunpeko ikastetxe eta ikastetxe publikoetako lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleei zuzendutako programak garatzea (urtero, 50-60 eskola eta ikastetxe bitarteko 5.000 haur baino gehiago).

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-segurtasunari buruzko ikastaroak adinekoentzat

DGTrekin batera, adinekoentzako bide-segurtasuneko ikastaroak egiten dira erretiratuen zentroetan eta barrutietako zentroetan, Mugikortasunaren Astea aprobetxatuz. Besteak beste, seinaletika gogorarazten zaie, besteak beste, baldintza onenetan egon ezean ez dela gidatu behar.

**Kolaboratzailea:** Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kontrola edo kudeaketa:

### Abiadura kontrolatzeko eta istripuak prebenitzeko kanpainak

Prebentziozko kontrol-kanpainak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bilbao 30 kontrola

"Bilbao 30 kontrola" delakoak 30 km/h-ko abiadura muga hirian betetzen dela ziurtatu nahi du, poliziaren zaintza, seinaleztapen eta zigorren bidez. Bide segurtasuna hobetzea, kutsadura murriztea eta hiri inguru bizigarriagoa sustatzea du helburu. Horrekin batera, kontzientziazio-kanpainak eta kaleen diseinuan doikuntzak egiten dira.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | 5 | **6** | **7** | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Gidatzean mugikorrak erabiltzearen aurkako kontrol-kanpainak

2023an 6 kanpaina egin ziren gidariek telefono mugikorra erabiltzearen aurka, eta 2024an 2 kanpaina egin ziren.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Bizikleta eta beste garraiobide batzuen artek bizikidetza kanpaina

Bizikletaren eta gainerako desplazamendu-moduen arteko bizikidetzarekin lotutako bide-segurtasuneko lana. Kanpainaren parte gisa *flyerrak* banatu ziren, eta horri buruzko seinale bertikalak eta horizontalak indartu ziren.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# Bilboko Udalaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Bilboko Udaltzaingoaren Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako 2021-2025eko Plan Estrategikoan parte hartzea

[Eusko Jaurlaritzak garatutako ekintza: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | **11** | **12** | **13** | **14** | **15** | **16** | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Zirkulazioarekin lotutako txostenak

Seinaleztapenari, trafiko-eremu tentsionatuei eta zirkulazioarekin lotutako beste batzuei buruzko txostenak egitea, eta radar pedagogikoek emandako estatistikari buruzko azterketak egitea.

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Hobekuntza-eremuei eta istripu-eremuei buruzko txostenak

Urteko ekitaldiekin (Aste Nagusia, Bilbao BBK Live, gaueko maratoia...) nahiz ezohiko ekitaldiekin (2023ko Frantziako Tourraren irteera, 2024ko emakumezkoen Txapeldunen Ligako finala eta beste batzuk) lotutako zirkulazio-dispositiboen hobekuntza-arloen azterketak.

Istripu-guneei buruzko txostenak egitean, dagokion erakundeari (Udalari eta/edo Bizkaiko Foru Aldundiari) hobekuntzak egiteko proposamenak egiten zaizkio.

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | **8** | **9** | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### Alkoholaren eta drogen aurkako gailu berriak

Alkoholimetro eramangarri berriak eta droga toxikoen, estupefazienteen eta substantzia psikotropikoen balio-tartea handitzea, batez ere gazteenak drogen eta alkoholaren arriskuez kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko.

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak |
|---|

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Bizkaibizi, bizikleta publikoen zerbitzua

[Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bide-ezbeharrak kudeatzeko programa informatiko integrala

Bide-ezbeharrak kudeatzeko programa informatiko integral bat eskuratzea, RVATErako pasabideekin, eta estatistika kudeatzeko softwarea ezartzea, istripu-tasako puntu beltzak kudeatzeko tresnekin, bide-azpiegiturak hobetzeko.

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | **7** | 8 | **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Bilboko Udaltzaingoarentzako prestakuntza

Prestakuntza orokorra ematea Bilboko Udaltzaingoa osatzen duten pertsona guztiei, bide-segurtasunaren arloko berrikuntzei dagokienez, eta prestakuntza berezia ematea Bide Segurtasuneko Ikuskaritzetako agenteei (administrazio-alkoholemiak, taxien eta VTCen zirkulazioa, emisio gutxiko eremua, mugikortasun urriko ibilgailuak eta beste batzuk) eta Istripuen Ikerketako agenteei (trafikoko polizia judizialari buruzko prestakuntza, zuhurtziagabekeriagatiko lesioen izapideak barne, besteak beste).

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kontrola edo kudeaketa:

### Haurrei eusteko sistemen eta uhalen segurtasun-kontrolak

2023an 2 kanpaina egin ziren Bilbon uhalaren eta haurrak eusteko sistemen erabilera egiaztatzeko, eta 2 kanpaina 2024an. Kontrol horien helburua da gidariak eta bidaiariak kontzientziatzea oso garrantzitsua dela gailu horiek behar bezala erabiltzea, istripurik gertatuz gero lesio larriak izateko arriskua murrizteko.

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak |
|---|

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Alkohol eta drogen kontsumoaren gaineko kontrolak

2023an eta 2024an, alkohol eta drogen kontsumoa prebenitzeko kontrolen hainbat kanpaina egin dira Bilboko Aste Nagusian. Hala, areagotu egiten dira hiriko bide jendetsuenen kontrola eta zaintza, substantzia horiek eragindako zirkulazio-istripuak murrizten saiatzeko.

Eusko Jaurlaritzak **sustatua**: Segurtasun Saila – Trafiko Zuzendaritza.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Trafiko Istripuetako Biktimak Oroitzeko Munduko Eguna

[Stop Istripuak eta Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 |

### Kontzientziazio bideoak garraio publikoan

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Mugikortasun Aktiboaren Adierazpena

[Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Bizkaibizi erabiltzeko esperientzia hobetzeko kanpaina

[Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# 6. Donostiako Udala

## GARATUTAKO EKINTZAK

**Donostiako Udalak sustatutako ekintzak: 15**

**Donostiako Udalak parte hartzen duen beste eragile batzuek sustatutako ekintzak: 2**




## HARTUTAKO KONPROMISOAK

Eragile sinatzaileak gauzatutako ekintzek Ituneko konpromiso hauek garatu dituzte:

- ✓ 1. Konpromisoa: Garapen Jasangarrirako Nazio Batuen 2030 Agenda ezartzea.
- ✓ 2. Konpromisoa: Erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua indartzea.
- ✓ 3. Konpromisoa: Zero Biktimen Ikuspegia osatuko duten politikak ezartzea.
- ✓ 4. Konpromisoa: Faktoreen arteko interdependentziari heltzea.
- ✓ 5. Konpromisoa: Mugikortasun aktiboa sustatzea eta garraio publikoa bultzatzea.
- ✓ 6. Konpromisoa: Hiri-eredu berrien alde egitea.
- ✓ 7. Konpromisoa: Ezbehar-tasa handiko eremuak eta hobekuntza potentzial handiko eremuak ezabatzeko estrategiak planifikatzea eta koordinatzea.
- ✓ 8. Konpromisoa: Kudeaketa integralaren alde egitea.
- ✓ 9. Konpromisoa: Bide-sareko azpiegiturak mantentzearen alde lan egitea.
- ✓ 10. Konpromisoa: Berrikuntza eta teknologia berrien erabilera sustatzea.
- ✓ 11. Konpromisoa: Kolektibo kalteberen babes berezian arreta jarriko duten politikak bultzatzea.
- ✓ 12. Konpromisoa: Kontzientziaziorako eta sentsibilizaziorako prestakuntza-programak sustatzea.
- ✓ 13. Konpromisoa: Bide-erabiltzaileei arriskuei eta lege-ondorioei buruzko informazioa ematea eta errehabilitazioaren aldeko apustua egitea.
- ✓ 14. Konpromisoa: Laneko Bide-Segurtasuna Laneko Arriskuen Prebentzioaren Kudeaketaren barruan sartzea.
- ✓ 15. Konpromisoa: Istripuaren ondoren erantzun eraginkorra ziurtatzea.

# Donostiako Udalak sustatutako ekintzak

## Plana edo estrategia:

### Donostiako Hiri-Mugikortasun Jasangarrirako Plana (HMJP)

Donostiako 2024-2029 aldirako Hiri Mugikortasun Jasangarrirako Plana onartzea. Plan horren helburua hiriko mugikortasuna modu jasangarrian hobetzea da, hiri-garapenaren, irisgarritasunaren eta ingurumenaren babesaren arteko oreka sustatuz. Garraiobide eraginkorragoak eta ekologikoagoak sustatu nahi ditu, auto pribatuarekiko mendekotasuna murriztuz eta garraiobide jasangarriagoak lehenetsiz, hala nola oinez ibiltzea, bizikletaz ibiltzea eta garraio publikoa erabiltzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Eskola Mugikortasunerako Ekintza Plana

Eskola Mugikortasunerako Ekintza Planaren helburua da ikasleentzako joan-etorri seguru, jasangarri eta autonomoak sustatzea ikastetxeetara eta ikastetxeetatik egiten dituzten joan-etorrietan. Plan hori hiriko mugikortasun jasangarriaren estrategiaren barruan kokatzen da, eta auto pribatuaren erabilera murriztea, bide-segurtasuna hobetzea eta ikasleen artean ohitura osasungarriak sustatzea du helburu.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azterketa, txostena edo analisia:

### Semaforodun bidegurutzeetan (babes-anbarretan) baterako biraketak aztertzea eta kentzea

Baterako biraketak aztertzea eta kentzea, eta fase bereiziak ezartzea, bidearen erabiltzaileak babesteko, bereziki zirkulazio handiko elkarguneetan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Emakumeari eta mugikortasunari buruzko azterlana

Carlota Jauregi EHUko Kriminologiako doktoregaiaren kasu-azterketa, Donostiako hiri-espazioei eta emakumeen mugikortasunari buruzko azterketa. Azterketa hori egiteko, aplikazio mugikor bat diseinatu zen, emakumeek azterketan parte hartzeko eta beren pertzepzioak transmititzeko erabil zezaketena. Ikerketak hiri-mugikortasunaren eta emakumeek espazio publikoetan duten esperientziaren arteko erlazioa aztertzen du. Emakumeek garraio-segurtasuna eta irisgarritasuna nola bizi duten eta nola hautematen duten aztertzen dute ikerketa horiek, eta ikuspegi berezia dute genero-indarkeriari, jazarpenari eta garraiobide eta espazio publikoak erabiltzeko diskriminazioari lotutako arriskuetan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Agenda 2030 programa. Hiriko puntu ilunak ezabatzea

Donostiako puntu kritikoen mapa osatzea, Altza, Intxaurrondo, Bidebieta, Ategorrieta, Gros, Egia, Loiola eta Aieteko ikastetxeen parte-hartzearekin. Ikastetxe bakoitzak bere auzoa aztertu du, eta puntu ilunen zerrenda bat egin du argazki batekin, kokapena, arazoa eta balizko konponbideak jarriz. Udalak proposamen horiek guztiak jaso ditu, eta puntu kritikoak izendatzeko ardura duen lantaldeari helaraziko dizkio, kontuan har ditzan. Ekainean zehar, auzo bakoitzeko kultur etxeetan ikasleen lanak egongo dira edonork ikusteko.

**Kolaboratzailea:** Eusko Jaurlaritza: Hezkuntza Saila.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Azpiegitura edo teknologia:

### Hirigintza taktikoa, eskola-inguruneetan bide-segurtasuna hobetzeko neurri gisa

Espazio publikoa eraldatzeko aldi baterako eta kostu txikiko irtenbideak aplikatzea, haurren segurtasuna lehenesteko eta eskolarantz eta eskolatik bertatik egiten dituzten joan-etorrietan babesteko. Neurri horien artean daude abiadura-murriztaileak ezartzea, espaloiak handitzea, oinezkoentzako guneak sortzea eta seinale argiak jartzea.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Azpiegitura berriak eta egindako obrak

- Espaloiak, beheraguneak, bizkarrak, sakanguneak, zabaltzea.
- Zirkulazioa baretzea.
- Oinezkoentzako gune berriak.
- Hirigintza taktikoa.
- Itsuentzako edo ikusmen-urria dutenentzako soinu-gailuak semaforoetan.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak |
|---|

| | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Tresna, zerbitzua edo plataforma:

### Desgaitasuna duten pertsonentzako Laguntza Pertsonalizatuko Zerbitzua Autobus Geltokian

Geltokiak doako laguntza ematen die desgaitasuna (fisikoa, intelektuala edo beste edozein motatakoa) edo adina dela eta garraioa erabiltzean mugikortasuna murrizten zaien pertsonei. Zerbitzuak bidaiariari ibilgailura igotzen laguntzen dio, igogailuak, gurpil-aulkiak edo, behar izanez gero, bestelako laguntza erabiliz.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Navilens teknologiako QR sistema ezartzea Autobus Geltokian

Ikusmen desgaitasuna duten pertsonei aukera ematen die Donostiako autobus geltokiak modu autonomoan non dauden jakiteko. Lokuzioen bidez, seinaleztapen sistema horrek aukera ematen du testuinguruko informazio irisgarria lortzeko, hala nola geralekuaren izena, autobusen denbora errealeko iritsiera eta horien helmuga.

Proiektu hau Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioren (*Next Generation funtsak*) hainbat deialdik finantzatutako markesinak berritzeko ekimenean dago txertatuta

**Kolaboratzailea:** Espainiako Gobernua: Garraio eta Mugikortasun Jasangarriaren Ministerioa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | 3 | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | **10** | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Ikastaroa edo prestakuntza:

### Bide-segurtasunari buruzko prestakuntzak

- Bide-segurtasunari buruzko prestakuntza eta sentsibilizazioa hainbat kolektibotan (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Heziketa Zikloak, Gradu Soziosanitarioak, etab.)
- Formakuntzak enpresetan, Decathlon, etab.
- Agenteen barne-prestakuntza.
- Trafikoko polizia judizialaren ikastaroa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | **14** | 15 | 16 | 17 |

## Ideien lehiaketa, think tank edo lantaldea:

### Lantaldea: Eskola Mugikortasunerako Eskola Kontseilua

Eskolara bidean haurren artean mugikortasun jasangarriagoa, seguruagoa eta autonomoagoa sustatzeko hezkuntza-proiektu eta proiektu parte-hartzaile baten parte den lantaldea. Azken helburua da espazio publikoa eraldatzea, adingabeek segurtasunez mugitzeko aukera izan dezaten, hezkuntza-komunitate osoa ohartzen den bitartean mugikortasun aktibo eta ingurumenarekiko errespetuzko baten garrantziaz.

**Kolaboratzaileak:** Ikastetxeak.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### Lantaldea Moto Clubarekin

Moto Club hiri-mugikortasuneko gaietan laguntzera bideratuta dago, batez ere motozikleten eta hirian duten lekuaren inguruan. Aparkamendua hobetzeko proposamenak ere egiten dituzte, Anoetako espazioak kendu dituztelako, eta horrek arazoak eragin dizkielako motor-gidariei eta egoiliarrei.

**Kolaboratzailea:** Gipuzkoako Moto Club.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kontrola edo kudeaketa:

### Bizikletak eta MPIak kontrolatzeko kanpaina

Bizikletak eta MPIak, patinete elektrikoak adibidez, kontrolatzeko kanpaina, ibilgailu horiek arduraz eta segurtasunez erabiltzen direla ziurtatzeko, zirkulazio-kontrolak eta zirkulazio-arauei buruzko kontzientziazioa barne.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Kanpaina edo komunikazioa:

### 2022-2023 Mugikortasun Astea

Mugikortasun jasangarria, ingurumena errespetatzen duten garraiobideen erabilera eta auto pribatuaren erabilera murriztearen garrantziaz herritarrak kontzientziatzeko ekitaldia. Udalak eta hainbat kolektibok parte hartu zuten ekimen horretan, eta hiriko bizi-kalitatea hobetzeko hainbat jarduera egin ziren, hala nola Bizikletada, bizikleta eguneroko garraiobide gisa erabiltzea sustatzeko antolatutako bizikleta-martxa.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **1** | **2** | 3 | **4** | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

### "Adi, Koxka begi bistan" kanpaina

Ikusmen urritasuna duten pertsonen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzera bideratutako ekimena, Koxka bezalako herriko elkarteek eta inklusioan diharduten beste batzuek sustatua. Kanpainaren helburua da hiriko kaleen segurtasuna eta mantentze-lanak hobetzea, bereziki galtzadako zuloei edo akatsei dagokienez. Kanpaina honen bidez, herritarrak animatzen dira errepideetan oinezko, txirrindulari edo gidarientzat arriskutsua edo gogaikarria izan daitekeen edozein hutsegiteren berri ematera.

**Kolaboratzaileak:** Begisare kolektiboa / Koxka.

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | **5** | **6** | 7 | 8 | **9** | 10 | **11** | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

## Donostiako Udalaren laguntza duten beste eragile batzuek sustatutako ekintzak

## Kanpaina edo komunikazioa:

### Trafiko Istripuetako Biktimak Oroitzeko Munduko Eguna

[Stop Istripuak eta Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **2** | **3** | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 |

### Kontzientziazio bideoak garraio publikoan

[Stop Bide Indarkeriak garatutako ekintza].

| Ekintza honetan garatutako konpromisoak | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | **3** | 4 | **5** | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |

# 7. Gasteizko Udala

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

## GARATUTAKO EKINTZAK

**Gasteizko Udalak sustatutako ekintzak: 48**

